



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMA



SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMA



SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023



1. SEGURTASUNA [04]

- 1.1 Sarrera [05]
- 1.2 Kontzeptua [08]
- 1.3 Euskadiko Segurtasun Publikoa [10]
- 1.4 Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra (ESPPO). [12]
- 1.5 Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema (SVAE). [14]
Haren ezaugarriak eta zerbitzuak

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA [19] Planak, taktikak eta prozedurak

- 2.1 Larrialdi Planak [21]
- 2.2 Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) [24]
 - 2.2.1 Planaren zuzendaritza [25]
 - 2.2.2 Plana aktibatzea. Faseak eta egoerak [26]
- 2.3 Taktika operatiboak [29]
 - 2.3.1 Taktika operatiboaren egitura eta horiek aktibatzea [30]
 - 2.3.2 Taktika operatiboaren zerranda orokorra [31]
 - 2.3.3 IMV eta IEV taktikak [34]
- 2.4 Prozedurak [36]
 - 2.4.1 Prozeduren antolaketa [37]
 - 2.4.2 Biktima eta haien senideentzako informazioa eta arreta [38]

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK [40]

- 3.1 088 telefonotik 112 telefonora [41]
- 3.2 Koordinazioa eta ekintza-batasuna [45]
- 3.3 Antolaketa operatiboa (arreta mailak) [47]
 - 3.3.1 Telefono bidezko kudeaketa [48]
 - 3.3.2 Gertakariaren kudeaketa [50]
 - 3.3.3 Larrialdietan Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzua [51]
 - 3.3.4 CECOP/CECOPI (Krisi-mahaiak) [52]
- 3.4 Kudeaketa- eta koordinazio-tresnak [53]
 - 3.4.1 Euskarri sistema informatikoa [54]
 - 3.4.2 Enbor komunikazio-sarea [57]
 - 3.4.3 Irudiak kudeatzeko sistemak [60]
 - 3.4.4 Koordinazio-kamioiak AK (Aginte Kamioia) [62]

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA [64]

- 4.1 Informazio- eta alerta-sarea [66]
 - 4.1.1 Informazioaren jasotze automatiko etengabea [67]
 - 4.1.2 Abisu, alerta eta alarma meteorologikoen sistema [69]
 - 4.1.3 Larrialdi handien abisu-sistema [70]
- 4.2 Abisatzeko eta informatzeko beste sistema batzuk [71]
 - 4.2.1 Alderantzizko 112a [71]
 - 4.2.2 Sare sozialak [72]

1

SEGURTASUNA




1. SEGURITASUNA


1.1. Sarrera

Euskadin, larrialdien eta babes zibilaren arloko gaur egungo errealitatea eta Euskalmet- Euskal Meteorologia Agentzia bera ere azaltzeko, ezinbestekoa da aldeaz aurretik gogoraraztea gure lurraldean 1983'ko abuztuan hiru egunean, eta bereziki urte horretako abuztuaren 26an, izandako eurite handien ondorioz gertatu zen hondamendi naturalik handiena.

Euriteek eragindako uholdeen ondorioz, 34 pertsona hil eta bost desagertu ziren. Horrez gain, galera ekonomiko handiak egon ziren, eurotan gaur egun 1.100 milioi eurotik gorakoak izango zirenak (Bizkaian soilik 768 milioi euro²), nahiz eta beste iturri batzuek dioten galeren kopurua askoz handiagoa izan zela.



Bilboko jaiak iraun bitartean euria presente egon zen eta 1983ko abuztuaren 26an hondamendia gertatu zen.



Itsadarreko urak gainezka egin zuen Bizkaiko hiriburutik (Bilbao) igarotzean.

1. SEGURTASUNA

Gertaera tragiko horrek lan egiteko moduan aldaketa bat ekarri zuen; izan ere, administrazio publiko zein pribatu guztiak ondorioztatu zuten aparteko gertaerei modu ordenatuan heldu ahal izateko, ezinbestekoa zela aldeaz aurretik gertakari arruntetan sistema guztiak bateratzea. Egunez egun koordinatuta lan egitea iruditu zitzairen izan litezkeen larrialdi handiei erantzun onena emateko prozedurarik onena.

Horren guztiaren berehalako ondorioa izan zen koordinazio operatiboko zentroak SOS Deiak³ martxan jarri zirela. Egia da zentro horiek 83ko abuztuko gertakariak baino hilabete batzuk lehenagoko arau batean oinarrituta hasi zirela, baina koordinazioari bultzada handia eman zioten, geroago azalduko den bezala.



Prentsa eta irratia herritarren zerbitzura jarriko hedabideak izan ziren.



1. SEGURTASUNA

Azpimarratu behar da 1985era arte ere ez zegoela babes zibilar buruzko lege mailako Estatuko arau zibilik⁴.

Larrialdien konponketa hobetzeko helburuarekin, azaldu behar da Euskadin babes zibila ez dela kontu solte bat segurtasunarekin lotutako beste kontzeptuetatik aparte doana; aitzitik, dena batera joaten da aurrera, garatzen doazen sistemek eta azpistemek elkarren arteko lotura bat izaten dute edo kudeaketa-modua partekatzen dute eta, horri esker, segurtasunean inplikaturako gainerako elementu eta zerbitzuekin bateragarriak izaten dira. Hori da “gure segurtasunaren” ezaugarri bereizgarri bat eta, ondorioz, sistema perfektua izan gabe ere, teoriarik eskura baliabide gehiago dituzten beste sistema batzuek baino jarduteko ahal azkarragoa, eraginkorragoa eta efikazagoa izaten du.

Hasieratik hasiko gara eta aurrera egiten joango gara gure errealitatea azaltzen duten kontzeptuen bidetik.



Lehen lan-talde operatiboaren bilera, funtzionamendu-irizpideak ezartzera bideratutakoa (Bilbao).

1. SEGURTASUNA

1.2. Kontzeptua⁵

Definizioz, **segurua**, latinezko *securus*-tik datorrena, aske dagoen eta arriskurik, minik edo perilik ez duen pertsona da.

Definizio hori hitzez hitz aplikatuta, argi dago, segurtasuna ez dela balio absolutu bat eta, hortaz, erabateko segurtasuna lortzerik ez dagoela. Beraz, esan dezakegu



Historian zehar, pertsonen segurtasun-elementuak garatu dituzte arriskuetatik babesteko.

segurtasunaren bilaketa amaierarik gabeko bidea dela. Eta horrek garrantzi handia dauka; izan ere, amaierarik ez badu, nahitaez buruan izan behar dugu etengabeko hobekuntzaren ideia; arrisku eta egoera berriak ager daitezkeelako, baina baita beti egoten delako segurtasuna hobetzeko aukera. Beste modu batean esanda “*atzo egiten genuena egitea dagoeneko ez da nahikoa*”.

Segurtasuna den utopia hori helburu, gizakia etengabe ibili da bere ohiturak eta bere bizitza antolatzeko modua egokitzen eta, oro har, etengabe pentsatu behar izan du bere unean uneko ongizatea hobetzean baino zerbait gehiagotan, hau da, bere ongizate hori ziurtatzean.

Pertsonak historian zehar ibili dira natura gogorraren erasoek eragin liezazkieketen kalteetarako konponbideak bilatzen; eta horregatik, esaterako, leku altuetan bizitzen jarri dira uholdeetatik salbu egoteko, edo kobazuloetan aterpetu dira, hotzetik, eurietatik eta elurrietatik babesteko. Beste batzuetan, inguruko gizakien erasoek aurre egiteko non kokatu ere pentsatu behar izan dute, oholesien atzean etsaietatik babestuta tinko eusteko. Beti ibili dira beren egoera babestuko zuen zerbaiten bila eta horretarako baliabide asko erabili eta ahalegin handiak egin dituzte. Faktore hori, segurtasuna, beste batzuen aurretik jarri dute, nahiz eta beste faktore batzuek, maila teorikoan gutxienez, bizitza-kalitate hobeak ekar diezaiaketen.

Dena den, gizakien arazoak ez dira beti berdinak izan;

izan ere, arazoak bizitzeko moduarekin, aberastasuna sortzeko moduarekin, eta garapenak pertsonen bizi-balditzetan eragin duen hobekuntza-moduarekin lotuta egon dira.

Gizartea bilakatzen joan den heinean, askotan naturak berak eragindako gertaeren ordez, beste gertaera batzuk agertzen joan dira harreman sozialaren beraren ondorioz eta, azken garai hauetan, garapen teknologikoaren ondorioz ere bai.

Gertaerak beste dimentsio batekoak izaten hasi dira eta segurtasuna ez dago bakarrik bakoitzak har ditzakeen babes-neurrien menpe; aitzitik, dena denaren menpe dago, ondorioak batzen dira, arriskuak biderkatzen dira eta segurtasun-eza globalizatzen da.



Itsasoaren talka Euskadiko itsasbaterrean.

1. SEGURTASUNA

Segurtasunaren eta gizartearen arteko harremana ere bitxia izaten hasi da. Hor hasi da elkartzeaz eta desadostasunez beteriko historia bat eta, horretan zehar, gizakiak arrisku-egoera berriak sorrarazi ditu, askotan neurri zuzentzaile egokiak izan gabe; eta horregatik arriskua bertaratu denean neurri zuzentzaile azkarrak eta handiak hartu behar izan dira.


Dickensek hauxe zioen *“Porrot bakoitzak gizakiari ikasi behar zuen zerbait irakasten dio”*.

Esandako hori gauza jakina dela ematen du, baina argi dago gizakiak ez duela hori guztiz bere egin, prebentzio-neurriak, askotan eta esklusiboki, segurtasuna lanbide duten pertsonen esku utzi dituelako. Ahaztu zaio *“guztion segurtasuna guztion arazoa dela”*.

Ezusteko edo aurreikusitako ezinezko gertaerei buruz hitz egiten da orduan, eta horien artean atsekabetzea edo okerragoak izan ez izana eskertzea besterik ez dago. Hain zuzen, ustez saihetsezina denaren aurrean etsitzea edo, nahi izanez gero, ezbeharren emaitzarekin konformatzea eta kalte guztiak zorigaitzari egozteak.

Hala ere, eta batez ere azken garai hauetan, gertaera amaitu eta berehala, izan litezkeen arduradunak bilatzen hasten da, kausak, jatorria eta garapena alde batera utzita. Batzuetan ematen du norbaitek uste duela pertsona eragilea aurkituta kausa desagertzen dela. Ematen du gertaeraren ardura norbaiti egokitzen bazaio, erantzukizun kolektibotik salbu gaudela.

Baina ez dugu ahaztu behar *“segurtasuna oinarrizko giza eskubide bat dela eta horren menpe daudela beste eskubide batzuk; izan ere, segurtasunik ez badago ez dago bizitza, askatasuna, jabetza, eskubide sozialak, osasunerako eskubidea eta beste batzuk bermatzerik”*.



Musukoen banaketa, COVID-19aren zabalundearen ondoriozko pandemiaren hasieran.

Horregatik, hain zuzen, gizarteek seguruak ez diren egoeren aurrean babes-, prebentzio- eta arintze-sistemak sortu eta antolatzen dituzte, eta gizarte zenbat eta aurreratuago egon, eta gizarte horretan eskubideen eta askatasunen zenbat eta eskakizun handiagoa egon, orduan eta garrantzizkoagoak izaten dira sistema horiek.

Segurtasunari buruzko doktrinan bideak ez daude idatzita eta miraririk ere ez dago, baina banakako zein taldeko segurtasuna hobetzeko helburuak erdiestea eragotziko lukeen oztupo serio edo gogorrik ere ez.

Azken batean, inportanteena da helburua guztiz irisgarria izan ez arren emaitzak hobetzea eta kalteak gutxitzea beti merezi izaten duela, bizitzaz eta ongizateaz ari bagara.

1. SEGURTASUNA

1.3. Euskadiko Segurtasun Publikoa

Aurreko atalean adierazitakoari erantzuteko, Euskadin Segurtasun Publikoa eraikitzen joan da. Maiuskulaz idatzitako Segurtasun Publikoa osotasun bat da eta horrek hainbat azpistema artikulatzeko aukera ematen du.

Azpistema horiek integratuta, koordinatuta eta zerbitzu publikoari begira daude, aparteko edo elkarren arteko konexiorik gabeko azpistema moduan ager ez daitezten.



SVAEko zerbitzuak modu koordinatuan lan egiten gertakari kritiko batean.

Horiek horrela, 15/2012⁶ legearen zioen azalpenean haxe adierazten da:

“Segurtasun publikoaz aritzerakoan, beharrezkoa da ikuspegi sistematiko eta integral bat hartzea, zeinak artikulatzen baitu administrazio publikoek abian jartzen duten xedapen, prozedura, bitarteko eta baliabide sorta bat, helburu duena baldintzak sortzea eta oztopoak ezabatzea pertsonen bete-betean disfruta ditzaten beren eskubideak eta askatasunak eta posible izan dezaten bizikidetzaren baketsuan, ongizatean eta gizarte kohesionatuan bizitzea, hartarako ahal den neurrian murriztuz arriskuak eta perilak, nahita edo nahi gabe gertatu ohi direnak, pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez, bai eta pertsonen euren, beraien ondasunen eta ondare kolektiboaren segurtasunari dagokienez ere.”

Zioen azalpen horretan bertan, aurrerago, haxe azaltzen da:

“Segurtasun publikoaren sistemaren barruan daude polizia eta herritarren segurtasunarena eta larrialdiak eta babes zibilarena. Badira, hala ere, jardura administratiboaren beste arlo batzuk, hala nola zirkulazioa eta bide-segurtasuna, jokoak, ikuskizunak eta jolas-jarduerak, eta bada segurtasun publikoari loturik dauden edo segurtasun publikoaren osagarri diren beste jardura batzuen araubidea ere (hala nola segurtasun pribatua), eta haietako bakoitzak bere arautegia du.”

1. SEGURTASUNA

Argi dago, beraz, Euskadiko Segurtasun Publikoak anitzio handiko sistema bat aurkezten duela eta bakarra den sistema horrek administrazio eta erakunde guztientzat komunak diren printzipioak izan behar dituela oinarri. Printzipio komun horiek hauek dira: arriskuen eta mehatxuen prebentzioa, herritarrek dituzten beharrianak ezagutzea eta zerbitzu publikoa haiei egokitzea, baita arazoak identifikatzea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea ere.

Argi dago ezarritako ildoetan aurrera egin ahal izateko nahitaezkoa dela segurtasun arloko helburuak, estrategiak eta jarduera-ildoak planifikatzea.

Plangintza horren gailurrean Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra⁷ dago eta, jarraian, modu laburrean azalduko dugu.



SVAEko zerbitzuak modu koordinatuan lan egiten gertakari kritiko batean.

1. SEGURTASUNA

1.4. Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra (ESPPO).

ESPPO, legearen⁶ arabera, bost usteko plan bat da eta, horretan, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren txostena jaso ondoren, segurtasunaren egoera aztertzen du, erreala zein antzemandakoa, eta segurtasunaren aurreikuspena egiten du epe laburrera zein epe luzera. Plan horretan, planteatzen diren erronkei erantzuteko garatu behar diren lehentasunak eta helburu orokorrak zehazten dira.

Hortik aurrera, horiek lortzeko erabil daitezkeen baliabideen esleipena eta aplikazio-egutegia proposatzen dira, baita planaren indarraldiari dagozkion ebaluaketa- eta jarraipen-metodoak ere.

Plana etengabe eguneratzen denez, erantzunak uanean uneko inguruabarretara egokitzeko aukera dago eta horretatik 2020-2025 ESPPOren⁷ testuak berak hauxe dio:

“Gizarte honetan, segurtasun-eskaerak bilakatzen joan dira eta handitu ere egin dira. Esparru berri honetan, arrisku eta mehatxu berri batzuk agertu dira eta garrantzia hartzen joan dira azken urte hauetan, esaterako, pandemiak edo zibermehatxuak. Era berean, ezin dugu aztertu gabe utzi aldaketa klimatikoa muturreko fenomeno meteorologikoen sorreran izaten ari den eta izan dezakeen inpaktua. Horien guztien aurkako borroka Segurtasun Sailaren lehentasunetako bat da, ESPPOren eguneratzean ikusten den bezala”.

Egia da, aurreko ataletan adierazi den moduan, segurtasuna amaierarik gabeko bidea dela, baina Segurtasun Publikoko Plan Orokorrari esker Euskadin segurtasuna (erreala zein antzemandakoa) maila bikainetan mantentzen dela ere egia da. “Euskadiko Segurtasun Integraleko Eredua” diseinatu da eta horrek barne hartzen dituen zerbitzu guztiak koordinatzen ditu, Euskadiko hiru maila instituzionalekoak zein erakunde pribatu edo herritarren erakunde laguntzaileetakoak, segurtasun publikoaren mehatxu nagusiei eman beharreko erantzun eraginkorra eta bateratua planifikatzeko eta ordenatzeko helburuarekin; gure kasuan, eta testu honi dagokionean, larrialdien eta babes zibilaren arloko mehatxuei.

Dena den, teoriak harago, dokumentuak ekintza-plan zehatz bat definitzen du, EBren “Segurtasunaren Batasunerako 2025 Estrategiarekin”, NBERen “Garapen Iraunkorrerako Helburuekin” eta “Euskadiko Agenda 2030arekin” bat. Halaber, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunerako politiken garapena barne hartzen du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenaren arabera.

Noski, ESPPOk berezko ebaluazio-sistema bat ezartzen du eta horrek betearazpen- zein inpaktu-adierazleak izaten ditu.



Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorraren (2020-2025) azala eta egitura.

1. SEGURTASUNA

ESPPOk Euskadiko Segurtasun Sistemaren garapenerako daukan garrantzia kontuan hartuta, misioa, bisioa eta printzipioak azalduko ditugu, eta jarraian eta modu laburrean ildo-estrategikoak zein diren ere adieraziko dugu.

MISIOA

Bizikidetzaren sozialean eta herritarren ongizatean laguntzea, segurtasun eredu publiko integral eta jasangarri baten bidez, oinarritzat hartuta prebentzioa, asistentzia eta erakundearen eta herritarren erantzunkidetasuna.

BISIOA

Euskadi erreferente moduan kokatzea Europa mailan, segurtasun errealean zein hautemandakoan maila bikainak dituela.

PRINTZPIOAK:

- **Gertutasuna:** Jarrera irekia eta hurbila daukagu pertsona guztiekiko.
- **Konfiantza:** Zuzen jokatzeko dugu eta zintzo komunikatzeko gara.
- **Konpromisoa:** Erantzun eraginkorrak eta solidarioak emateko inplikatzeko gara, arazoak eraginkortasunez konpontzeko.
- **Lidergo eta taldea:** Modu kohesionatu eta koordinatua lan egiten dugu, lidergo aktiboaren gidaritzapean.
- **Bilakaera:** Etengabe berritzen eta hobetzen dugu.
- **Gardentasuna eta gobernu ona:** Ingurunearekin konprometitzen gara, gizartearen oinarritzako arauak eta printzipio etikoak errespetatuz eta konfiantza sortuz, gardentasunetik eta erantzukizun sozialetik.
- **Zerbitzu bokazioa:** Herritarrengan balioa sortzeko konpromisoa daukagu, alderdi publikoaren etikaren bidez.

12 ILDO ESTRATEGIKOAK HAUEK DIRA:

Euskadiko Segurtasun Integralaren Ereduaren esparru estrategiko eta kompetentziala ezartzea.

Segurtasun integralean aktiboki inplikaturik dauden erakunde eta agentzia guztien arteko koordinazio- eta lankidetzaren mekanismoak finkatzea.

Euskadiko segurtasun-sistemaren posizioa indartzea babes zibileko eta polizia-lankidetzako nazioarteko esparru eta agentzietan.

Prebentzio programa espezifikoak ezartzea, segurtasun-arriskuen aurrean sentiberagoak diren kolektiboekin jarduteko.

Euskadin azpiegitura sentibera propioak babesteko sistema bat sortzea, lankidetzaren publiko-privatuaren bitartez.

Tresna berriak ezartzea pertsonen babesa efikaziaz eta efizientziaz handitzeko.

Gaur egungo ikerketa-sistema delituen errealitate berrietara egokitzea, ahalik eta jarduerarik azkarrena eta biktimentzat hain astuna izango ez den jarduketara bat lortzeko.

Inteligentziak gidatutako segurtasun-eredu bat garatzea.

Herritarrekin eta gizarte zibilarekin harreman eta topaketarako dinamika sistematiko eta egituratu bat artikulatzea, baita gardentasunerako eta kontuak emateko.

Mekanismoa eta kanalak ezartzea herritarrekiko alde biko komunikazio zuzena eta efizientea ahalbidetzeko.

Pertsona konprometituak, kualifikatuak, partaidetza zentzua dutenak eta gogobetekak edukitzea.

Beharrezko lantaldea eta egitura finkatzea.



Umeei identifikazio-eskumuturrekoak banatzea.

SVAE eredu honen parte da, azpisistema gisa eta horren epe laburrerako eta epe ertainerako helburuak ESPPOn integratuta daude, horrela behar zuelako.

1. SEGURTASUNA

1.5.

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema (SVAE), haren ezaugarriak eta zerbitzuak

Euskadiko Segurtasun Publikoaren azpistema gisa, Larrialdiak Kudeatzeko Sistema arau batean lehen aldiz aipatu zen 1/1996 Legean⁸. Gero, urteetan zehar finkatzen joan da arauaren eguneratzeetan, bereziki 1/2017 Legegintzako Dekretuan⁹.

Izan ere, Legegintzako Dekretu horrek 2. artikuluan haxe ezartzen du:

“Larrialdiak kudeatzeko sistema integratu eta bateragarri bat une oro erabilgarri egongo dela bermatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiek, lege honen helburuak betetzeko eta bakoitzak bere eskumenen eremuan. Horretarako, koordinazioaren, lankidetzaren, elkartasunaren eta erakundeen arteko leialtasunaren printzipioak hartzen dituzte aintzat haien arteko harremanetan, bitarteko eta baliabide mugigarrien osagarritasun eta subsidiariotasunaren arabera egokitzen dituzte haien jarduketak eta integragarritasunari, gaitasunari eta egokitasunari begiratzen diote planak aplikatzerakoan”.

Aurreko testutik erraz ondoriozta dezakegu kontua ez dela zerbitzu espezializatuak “ex novo” sortzea, baizik eta, dagoeneko existitzen diren zerbitzuetan oinarrituta, babes zibilarren eta larrialdien arloko funtzionamendua bateratzea eta antolatzea, eta gainera aurreikusi behar da geroago sor litezkeen beste zerbitzu batzuk integratzeko aukera.

Larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko euskal sistemak honako hau hartzen du bere baitan: jatorri naturaleko, teknologikoko edo antropikoko arrisku edo mehatxu guztiek pertsoneri, ondasunei, ondare kolektiboari eta ingurumenari eragin diezazkiekeen kalteak ekiditeko, murrizteko edo zuzentzeko ekintzen multzoa, bai zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa beharrezkoa den urgentzia edo larrialdi kasuetan, baita, bereziki, eragin kolektibo larria, hondamendia edo lazeria publikoa gertatzen denean ere.

Beste era batean esanda, SVAE “antolaketa sistema” bat da eta horregatik, hain zuzen, inplikaturako zerbitzu guztiei komun zaizkien alderdiez arduratu behar da eta horretarako tresna teknikoak eta arau- eta euskarri-tresnak eman behar dizkie, horiei esker, aurreko paragrafoan aipaturako mehatxuetako edozeini erantzun behar zaionean parte hartu behar duten zerbitzu guztiak bateragarriak izan daitezten.



SVAEn parte diren zerbitzuetako ibilgailuak.

1. SEGURTASUNA

Aurretik azaldutakoa zehazte aldera, esan behar da Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren ezaugarriak hauek direla:**EZAUGARRIAK**

Sistema bakarra da. Horren parte dira larrialdi batean beharrezkoak diren erakunde eta zerbitzu guztiak.

Sistema horretarako sarbidea bakarra da. Larrialdietako dei guztiak sartzeko atari bakar bat dago.

Sistemak edozein larrialditarako balio du, eta inguruabarren arabera aldatu eta egokitu daiteke.

Eskala-sistema da. Ohiko larrialdi txikietatik hasita, larrialdi handi edo hondamendietara.

Jarduketa multidiziplinarra izan ohi da. Nahitaezkoa da baliabide eta bitartekoen erabilera segurua egitea eta berariazko mobilizazio-eta koordinazio-lana egitea, erantzun eraginkorra eta efikaza emateko.

Kasu guztietan, esku-hartzean aginte bakarra. Liskarrak eta koordinazio-faltak ekidin behar dira.

Erantzunaren antolaketa egituratua aldeztu aurretik ezarritako prozeduren, taktiken eta planen bidez artikulatzen da. Inprobisazioa txikiagotzen da.

Koordinazioa sistema tekniko bateratuen edo bateragarrien bidez (komunikazio-sarea, informatika, alerta-sarea, etab.) kudeatzen da.

Babes zibileko boluntarioak larrialdi arruntetan integratuta daude.

Arauzko prestakuntza Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak antolatzen eta bermatzen du.

Herritarrei informatzea, beren autobabeserako, kudeaketaren nahitaezko zati bat da.

Aurreko guztia araudian jasota dago. Hortaz, behar bezala garatzeko lege euskarria dauka.

Zaila da zehaztea SVAE osatzen duten zerbitzu operatiboak zeintzuk diren; izan ere, lehen ere esan den bezala, sistema ez dago zerbitzu edo erakunde zehatz batean; aitzitik, sare bat da eta herritar guztiak dira sare horren parte. Dena den, argi dago zerbitzu espezializatu iraunkorrek egon badaudela eta horien zeregina da, berariaz, egunez eguneko larrialdi-egoerak gertatzen diren lekuan bertan konpontzea. Zerbitzu profesional integratuak dira 24 x 365 erantzuna dutenak, eta hauek dira:

- **Hiru hiriburuetako eta foru aldundietako SPEISak (suhiltzaileak).**
- **EUSKADIKO POLIZIA (Ertzaintza eta Udaltzaingoak)**
- **OSAKIDETZA EMERGENTZIAK**



Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzua.

1. SEGURTASUNA



Euskadiko polizia (Ertzaintza eta Udaltzaingoak).



Osakidetza Emergentziak.

Zerbitzu profesional horietaz gain, Euskadik badauka babes zibileko boluntarioen sare indartsu bat. Borondatezko parte hartze hori dagokion araudian¹⁰ araututa dago, parte hartze hori Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari guztiz integratuta egon dadin.

Aurreko guztiagatik, esan dezakegu SVAEn larrialdiei erantzuna ematen zaiela administrazio, erakunde eta zerbitzu guztien arteko kooperazio- eta koordinazio-printzipioetan oinarrituta. Eta koordinazioa ez da inprobisatzen; aitzitik, edozein gertaeraren aurretik planifikatu eta ezartzen da.



Boluntarioen erakundeek bermatu eta bideratzen dute herritarren parte hartzea babes zibileko lanetan eta, oro har, larrialdiei ematen zaien arretan, alderdi prebentibo zein operatiboetatik. Babes Zibileko boluntarioen tokiko erakundeek eta Babes Zibilaren arloko erakunde laguntzaileek, Segurtasun Sailarekin hitzarmena dutenek, jarduten dute agintari eskudunek eskatuta eta SVAEn larrialdiak kudeatzeko ardura dutenen aginduen menpe. Gurutze Gorriko boluntarioak LAEMZek aktibatzen ditu eta larrialdiari erantzun egokia eman ahal izateko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriz laguntzen du.

1. SEGURTASUNA



Gurutze Gorriko boluntarioak LAEMZek aktibatzen ditu eta larrialdiari erantzun egokia eman ahal izateko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jarriz laguntzen du.



Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko boluntarioak espezializatuta daude mendian galdutako pertsonak edo hondakinen edo elurraren azpian harrapatutakoak aurkitzen.



Euskal DYAK LAEMZi laguntzen dio larrialdiak sorrarazten dituen egoerei erantzuten.

1. SEGURTASUNA

Euskadiko Espeleolaguntza taldeko boluntarioak aktibatzen dira, larrialdi-egoeragatik, norbait erreskatatzeko espeleologian profesionalak direnen espezializazioa beharrezkoa denean.



VOST Euskadi Segurtasun Sailari laguntzen dio herritarrentzako autobabes mezuak zabaltzen eta sareko berri faltsuak eta gezurrak antzematen.

2



ERANTZUNAREN
ANTOLAKETA
EGITURATUA

PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Larrialdietan, erantzun-denbora beti izan da faktore garrantzitsu bat kalteak txikitzeari begira, horregatik printzipio honetan oinarritu behar gara: *“larrialdia datorrenean ez da nola jardun pentsatzeko unea, pentsatu den bezala jarduteko unea baizik”*. Hori dela eta, nahitaezkoa da izan litezkeen gertaeren azterketa zehatza egitea eta eman beharko lirartekeen erantzunak erabakitzea.

Hala ere, gertaera bakoitzak bere berezko ezaugarriak izaten ditu, antzeko gertaeretatik desberdin bihurtzen dutenak, eta berez kasu zehatz bakoitzerako erantzun ideala lortzerik ez dago, baina, aipatu diren azterketa horiek egin eta eman beharreko erantzunak aurreikusiz gero, inprobisazio maila hein handi batean txikituko dugu, eta beraz, argi dago errore-posibilitatea askoz txikiagoa izango dela.

Dena den, irekiak dira, batetik bestera igaro baitaiteke egoerak hala eskatzen duenean. Hori normalean planen eta taktiken artean gertatzen da, prozedurak bi horien osagarriak izan baitaitezke eta arlo zehatzetan euskarri metodologikoa ematen diete.

Euskadin erantzun egituratu hori hiru kudeaketa-tipologiatan ordenatzen da:

- **LARRIALDI PLANAK**
- **TAKTIKA OPERATIBOAK**
- **PROZEDURAK**

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

2.1. Larrialdi Planak

Larrialdi-egoerei ematen zaien erantzunaren goreneko mailan daude. Babes zibileko planak arrisku larriko, hondamendiko edo lazeria publikoko kasuetan aktibatzen dira, hau da, egoera larrietan. Plan horietan pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezkoak diren mobilizazio mekanismoak eta esparru organiko eta funtzionala ezartzen dira, baita esku hartuko duten administrazioen arteko koordinazio-eskema ere.

Babes zibileko planak lurraldekoak edo bereziak izan daitezke. Beheragoko kudeaketa-maila batean, baina ez garrantzi gutxiagoko batean, autobabes planak garatzen dira.




Planifikazio Zerbitzua arduratzen da Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren ardura diren larrialdi-planak lantzeaz eta horiei jarraipena egiteaz.

Lurraldeko planak lantzen dira lurralde-eremu bakoitzean gerta daitezkeen larrialdiei aurre egiteko. Plan horiek, arriskuen azterketa zehatzago bat alde batera utzi gabe, inguruabarrak edozein direla ere, egiten diren jarduketei euskarria ematen diete, azterketa horretan jasota egon ez arren. Plan horiek administrazioen

antolaketa-mailaren arabera artikulatzen dira, honela:

- Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI)
- Lurralde Historikoetako planak
- Udal Planak



Eskemak larrialdi-planen antolaketa-mailak erakusten ditu.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Plan bereziak lantzen dira jarduera-sektore motaren edo posiblea den larrialdi motaren ondorioz sortutako arrisku zehatzei aurre egiteko. Gaur egun EAEn indarrean dauden plan bereziak hauek dira:

- UHOLDEEN ARRISKUARI AURRE EGITEKO LARRIALDI-PLAN BEREZIA.
- BASO-SUTEEI AURRE EGITEKO LARRIALDI-PLAN BEREZIA.
- ITSAS KOSTALDEKO KUTSADURARI AURRE EGITEKO LARRIALDI-PLANA (ITSASERTZA).
- ARRISKU SISMIKORAKO LARRIALDI-PLAN BEREZIA.
- ARRISKU ERRADIOLOGIKORAKO LARRIALDI-PLAN BEREZIA.
- ERREPIDEZ ETA TRENBIDEZ SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEAK DAKARREN ISTRIPU-ARRISKUARI AURRE EGITEKO LARRIALDI-PLAN BEREZIA.
- ISTRIPU LARRIETAN GAI ARRISKUTSUAK TARTEKO DIRENEAN SORTZEN DIREN ARRISKUEI AURRE EGITEKO KANPOKO LARRIALDI-PLANAK.



Euskal Autonomia Erkidegoko Larrialdi Plan Berezien azalak.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Plan horiei beste espezifiko batzuk gehituko zaizkie beharrezkotzat jotzen badira (transmisio handiko gaixotasunei aurre egiteko plan berezia, larrialdi aeronautikoei aurre egiteko plan berezia, etab.).


Planifikazioaren barruan Autobabes planak^{11,12}, ere aipatu behar dira, horiek osatzen baitute larrialdien antolaketa-maila oinarritzkoena.

Honela definitzen dira: *“jarduera, establezimendu edo instalazio baterako aurreikusitako esparru organiko eta funtzionala, eta horien helburua da pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzea eta kontrolatzea, eta izan daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun egokia ematea”*. Era berean, plan horiek bermatu behar dute babes zibileko sistema publikoan integratzen direla.

Autobabes planak ezarri behar dira eta haien eraginkortasuna mantendu behar da ariketak eta simulakroak eginez, baina, horrez gain, teknikari eskudunek¹³ egin behar dituzte eta Autobabes Planen Erregistro Orokorrean^{11,12} erregistratu behar dira. Erregistro horrek bermatzen du SVAEko zerbitzu guztiek informazioa eskuragarri izango dutela, larrialdi-egoeretan behar dituzten datuak, planoak etab. kontsultatzeko aukera izan dezaten.



LAEMZi atxikitako Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean xedea da Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemak behar bezala funtziona dezan garrantzitsuak diren autobabes-planen buruzko datuak inskribatzea.



Aurreikusitako moduko Arriskueterako Baliabidea (AAB) da ekitaldiaren estaldura egokia bermatzeko neurri guztien multzoa, segurtasunaren eta asistentzia sanitarioaren ikuspegitik begiratuta, eta kontuan hartuta ekitaldiaren ezaugarriak eta aurreikusitako moduko arriskuaren identifikazioa.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

2.2. Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI)

Larrialdiak Kudeatzeko Legean^{8,9} aurreikusita dago “Larrialdiei Aurregiteko Bidea – LABI” Euskadiko Babes Zibileko Plana^{14,15}, arrisku larriei, hondamendiei edo lazeriei aurre egiteko antolaketa-tresna orokor gisa. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan, erakunde-maila desberdinetan, larrialdien kudeaketa ordenatzeko funtsezko tresna ere bada.

Horiek horrela, LABIk EAEko larrialdietako lurralde-plan gisa eta plan-tipologia desberdinetako plan zuzentzaile gisa balio izateaz gain, Larrialdiak Kudeatzeko Legeak arautzen dituen lazeria ez diren larrialdietan lankidetzatza-, koordinazio- eta antolaketa-sistema bat ere ezartzen du.

Hori dela eta, taktika operatiboen eta babes zibileko planen arteko harreman-mekanismoak antolatzen ditu eta gertaerak bi mailatan bereizten ditu:

1. MAILA: Lazeria ez diren gertakariak, baldin eta aurreikusten bada horiek konpontzeko larrialdietan esku hartzeko zerbitzu arruntak mobilizatzea nahikoa izango dela. Maila honetan, kasuan kasuko taktika operatiboan ezarritako lankidetzatza- eta koordinazio-irizpideak aplikatzen dira.

2. MAILA: Arrisku larriko edo hondamendiko egoerak, baldin eta horietan erantzun organiko-funtzionala emateko egitura berezi bat eta esku hartu behar duten administrazio publikoen arteko koordinazio-sistema bat behar badira. Maila honetan babes zibileko planak aktibatzen dira.



Euskadiko Babes Zibileko Planaren azala (LABI).

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.2.1. Planaren zuzendaritza

Babes zibileko planen zuzendaritza pertsona bakarrari egokitzen zaio beti, baina horrek ez du baztertzen zuzendariari laguntzeko aholku batzorde bat egoteko aukera.

Segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen Saileko sailburuak bere gain hartzen du jarduera guztien zuzendaritza eta koordinazioa, kasu hauetan:

- A. Euskadiko Babes Zibileko Plana edo plan bereziren bat ezartzeko agintzen denean.**
- B. Legearen arabera hondamendiko larrialdi-egoera deklaratzeko denean.**
- C. Erkidegoaz gaindiko interesa deklaratu ondoren, Estatuak zuzendaritza eta koordinazioa Autonomia Erkidegoko organoei eskuordetzen dizkienean.**

Planaren zuzendariak, edo eskuordetzaz haren eragileek, agindu orokorrak edo partikularrak eman ahal izango dituzte presazko premia-kasuetan, eta aginduok nahitaez bete beharko dituzte aginduen hartzaileek. Eragile horiek agintaritzaren agente izaera izango dute.

Zehazki honako hauek egiteko agindu dezake:

- Edozein motatako ondasunak suntsitzea, kaltetzea edo aldi baterako errekitetzea
- Beharrezkoak diren ondasunetan aldi baterako esku

hartzea eta horiek okupatzea

- Prebentzio-arrazoiengatik herriak ebakatu edo hustea
- Herritarrei ekintzak egiteko edo ez egiteko agintzea, edo bestelako bortxazko neurriak hartzea, prozedura arruntari jarraitu gabe, baldin eta legeen babesa badute eta beharizan-egoera kontuan hartuta proportzionatuak badira.

Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen Saileko Sailburuaren zuzendaritza lurraldeko beste edozein agintari publikoren zuzendaritza-eginkizunen gainetik dago; eta, horregatik, hark koordinatuko du gainerako agintarien eta plan-zuzendarien eskumenak erabiltzeko modua.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, Lehendakariak LABIren zuzendaritza beregana dezake, larrialdiaren hedapena edo intentsitatea edo gertatutako kalteak kontuan hartuta.

Era berean, planaren zuzendaritza bere gain hartuko du baldin eta, Estatuako agintariek larrialdia interes nazionala¹⁶ dela ebatzita, Estatuako gobernuak bere eginkizunak oso-osorik edo zati batean eskuordetzen badizkio.



COVID-19aren zabalkundearen ondoriozko osasun-alertagatik egindako LABIren aholku-batzordean, Lehendakaria batzordeburu.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

2.2.2. Plana aktibatzea. Faseak eta egoerak

Aktibazioa da planaren zuzendaritzak LABI-Euskadiko Babes Zibileko Plana modu global edo sektorialean martxan jartzea.

LABI- Euskadiko Babes Zibileko Planaren operatibitateari begira, malgutasuna nahitaezkoa da; eta horregatik plan hori aplikatzeko modalitate desberdinak ezarri behar dira hauen arabera:

- Jasota dagoen larrialdi-egoera bakoitza.
- Gertakariaren bilakaera: gerta daiteke larrialdia bat-batean agertzea edo arriskuaren bilakaera motelaren ondorioa izatea.
- Behar zehatzak: horiek ekar dezakete plana modu globalean aktibatzea edo horren zati bat baino ez.

I. ALERTA-FASEA:

Alerta-fase horretan, oraindik gertatu ez badira ere, larrialdiak gerta daitezkeela aurreikusten da. Inguruabarrak zer-nolakoak diren ikusita, egoerak okerrera egin ez gero, gertatu egin daitezke. Normalean iragarpen meteorologikoko fenomeno naturalekin lotutako inguruabarrak izaten dira, baina beste arlo batzuetan ere gerta daitezke, arlo teknologiko zein antropikoetan.

Fase honetan, gertaera larria ager daitekeela pentsarazten duten adierazleei jarraipena egiteko taktika ope-

ratiboak eta protokolo bereziak egongo dira aktibatuta. Noiz edo noiz, egoeraren ezaugarriak kontuan hartuta, baliabide eta bitarteko operatibo batzuk mobilizatu behar izatea gerta daiteke.

Oro har, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren alerta-fasea ezartzen denean, hau egin behar da:

- A. Egoeraren etengabeko jarraipena.
- B. Garrantzizkoa izan daitekeen informazioa komunikatu, jarduten dabiltzan zerbitzuei zein herritarrei.
- C. Kideak hurbiltzeko edo lekualdatzeko mugimenduak egin daitezke.
- D. Larrialdi-fasean beharrezkoak izan daitezkeen prozedurak, bitartekoak eta baliabideak konprobatu, bereziki oso ohikoak ez diren eszenatokitian.

II. LARRIALDI-FASEA:

Larrialdi-fasean, kalteak edo gertakariak dagoeneko gertatu dira eta, horren ondorioz, beharrezkoa da Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema osatzen duten zerbitzuek esku hartzea.

Esku-hartze hori ez da egoeraren jarraipena egitea bakarrik; izan ere, zuzeneko esku-hartzeak behar izaten dira, kalteak areagotu ez daitezten.

Fase honetan sartzen dira, halaber, iragarpenen larritasuna dela-eta aparteko neurriak (ebakuazioak, konfinamenduak, etab.) hartzea eskatzen duten egoerak; artean larrialdi-egoera gertatu ez bada ere.

Fase honen barruan egoera hauek daude:

0 EGOERA:

Udal-eremuko larrialdiak dira, eta toki- edo foru-mailako erantzunekin kontrolatzen dira. Horrelakotan, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean oinarrituta jarraipen-eta ebaluazio-lanak egiten dira eta, hala badagokio, toki- eta foru-planen zuzendaritzei kasuan kasuko laguntza emango zaiela bermatzen da. Jarraipen- eta laguntza-egoera hau interfase bat da eta toki- zein foru-plan horiek Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean integratzeko aukera ematen du, baldin eta, egoerak okerrera egin duelako, beharrezkoa bada.

Egoera honetan aplikatutako Larrialdi Planaren Zuzendaritza kasuan kasuko toki- edo foru-agintaritzaren ardura izango da. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planak jarraipen- eta ebaluazio-lanak egingo ditu eta hala badagokio, kasuan kasuko plan horien zuzendaritzei bermatuko die behar duten laguntza jasoko dutela eta, egoeratik beharrezkoa izanez gero, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean guztiz integratuko dituztela.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

0 Egoera honen barruan beste bi egoera mota ere sartzen dira:

- Intzidenteetarako Ekintza Planak (IEP). Horiek, jende ugari ekitaldi handietan edo aparteko ekitaldietan, fase operatiboan aktibatuta egoten dira, eta horregatik, LABIk jarraipena egiten du eta gertakari larriren bat gertatuz gero berehalako laguntza ematen du.
- Larrialdien ostekoa. Egoera oraindik larrialdiaren amaiera adierazteko eta berreskuratze-fasera pasatzeko bezain egonkorra ez denean.

Egoera honetako ekintzak garrantzi handikoak izaten dira, goragoko mailetan beharrezkoak izan litezkeen ekintzen prebentzio gisa. Egoera honetan LABIren Aholku Batzordea biltzeko deialdiaren aurre-abisua edo deialdia bera egin daiteke, baldin eta egoki irizten bada.

1 EGOERA:

Lurraldean eragin mugatua duten larrialdiak dira, eta herritarrek, ondasunak edo ingurumena neurri batean egoera kalteberan egoten dira. Egoera horretan, gerta daiteke Autonomia Erkidegoko erakunde komunek erantzun koordinatua eman behar izatea, larrialdiak udalerriri bati baino gehiagori eragiten dielako, edo Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planari esleitu zaizkion edo Planarenak diren baliabide eta bitartekoak aktibatzea beharrezkoa delako.

Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak deklaratu behar du 1 Egoera, hark berak hala erabakita edo udal- edo foru-agintarietara eskatuta. Egoera horretan, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren oinarrituta, koordinazio- eta laguntza-lanak egiten dira, plan horri esleitu zaizkion edo plan horren berezkoak diren baliabideek esku hartzen dute eta plan horretan aurreikusten diren babes-neurriak hartzen dira.

Larrialdiak udalerriri bakar bati eragiten badiot, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak lekuan bertan erantzuna koordinatzeko lana kasuan kasuko toki planaren zuzendaritzari eman diezaiotke. Horrelakoetan, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak bere berezko baliabideen gaineko agintea izaten jarraituko du.



Krisi-mahaia, Uholdeei Aurre egiteko Plan Berezia (2018) aktibatuta zelako.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)**2 EGOERA:**

Larrialdi-egoera horietan, haien ezaugarriengatik, larritasunagatik eta/edo arriskuaren hedaduragatik, udal- edo foru-administrazioen erantzuteko ahalmena gainditu egiten da. Oso egoera larriak dira, eta lekuko herritarrengan, ondasunetan edo ingurumenean eragin handia dute, edo izan dezakete bilakaera zein izango den ziur jakiterik ez dagoenean.

Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak deklaratu behar du 2 egoera, hark berak hala erabakita edo udal- edo foru-agintariek eskatuta. Egoera horretan, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak zuzendu eta koordinatu behar ditu ekintza guztiak, planean jasotakoaren arabera.

Egoera horretan, oinarrizko zerbitzu publikoen birgaitzearekin lotutako konponketa-neurriak aplika daitezke, zerbitzu horiek ez egoteak, bere horretan, larrialdi bat badakar edo ekintzen garapen egokia oztopatzen badu.

3 EGOERA:

Egoera horretan, autonomia-erkidegoaz gaindiko interesa egoten da, Babes Zibileko Legean¹⁶ aurreikusitakoaren arabera.

Horrelakoetan, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak agintari bat izendatu behar du, eta estatuko administrazioak izendatutakoarekin batera, Zuzendaritza Batzordea osatuko dute.



Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzua hedabideei erantzuten.

Estatuko ordezkariak egingo ditu zuzendari-lanak, berariaz beste norbaiten esku uzten dituen kasuetan izan ezik.

Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendariak, Zuzendaritza Batzordearen jarraibideak betez, planean jasota datozen baliabide propioak eta esleitutakoak koordinatzen jarraituko du.

III. BERRESKURATZE-FASEA:

Fase horretan larrialdia amaitutzat jo da eta ez dago berriro hasteko aukera esanguratsurik. Fase horretan biktimei arreta emateko, horiek ostatatzeko eta horiei laguntza psikologikoa, osasun arreta, etab. emateko lanak egin behar dira.

Larrialdiaren hasiera-hasieratik hasi behar izaten da lan horiek egiten, baina larrialdiaren fokua kontrolatu eta arriskua nabarmen murriztu osteko fase honetan ekintzen zaie lan horiei.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

2.3. Taktika operatiboak

Edozein gertakaritatik erator daiteke normaltasuna haus-ten duen larrialdi-egoera bat. Egoera horren aurrean erreakionatzeko, ondorioei aurre egiteko erantzun batzuk abiarazten dira, izan diren biktimei laguntzeko, horiek erreskatatzeko, eta kalte eta galera gehiago ez izateko. Eta hartarako, istripuari aurre egiten zaio, istripuaren zabal- kunea murriztu eta haren intentsitatea neutralizatzen da eta, behin istripua amaituta, eragina jasan duten oinarrizko zerbitzuak berriro abian jartzen dira.

Istripuei aurre egiteko erantzuna diziplina anitzekoa izan daiteke, hau da, gerta daiteke hainbat zerbitzu (baliabide materialak eta giza baliabideak) mobilizatu behar izatea. Zerbitzu horien funtzioak alde aurretik zehaztuta egon behar dira eta zerbitzuen esku-hartzeak behar bezala koordinatuta, helburu komuna eraginkortasun handienarekin lortzearren. Jarduera horiek egin behar dira ahalik eta zehatzena izango den erantzun-programa jakin baten arabera. Erantzun-programa horiek taktika operatiboak dira.

Koordinazio onena lortzearren, taktika operatiboek zehazten dituzte alarma edo deia denbora errealean identifikatzeko eta ebaluatzeko jardunbideak, bai eta baliabideak mobilizatzeko hartu behar diren neurriak eta irizpideak ere, gertakaria zein motatakoa den eta larrialdia zein fasetan dagoen kontuan hartuta.

Taktika operatiboak¹⁷ Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena daukan Saileko sailburuaren



SVAEko baliabideen diziplina anitzeko mobilizazioa.

Agindu^{18,19} baten bidez onartzen dira, zerbitzu eta administrazio interesdunei entzun ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordearen txostena jasota.



Taktika Operatibo 2020ko argitalpenaren azala. Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2020ko abenduaren 4ko Aginduak (EHAA 253 zk., 2020ko abenduaren 18koa) taktika horiek bosgarren aldiz aldatu zituen eta onartu zituen.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.3.1. Taktika operatiboen egitura eta horiek aktibatzea

Taktikek izan litekeen gertaera tipifikatu bati erantzun bat emateko prestatutako plan sinoptiko batena bezalako egitura daukate; gertaeraren aurrean, deia edo alarma denbora errealean identifikatzeko eta ebaluatzeko prozedurak deskribatzen dituzte, bai eta mobilizatu litezkeen zerbitzuak, baliabideak edo bitartekoak zein horiek egin beharreko zereginak ere, hau da, egoera, gertakari mota eta larrialdi-fasea kontuan hartuta aurrez ezarritako zereginak.

Halaber, zerbitzuak, bitartekoak eta baliabideak mobilizatzeko irizpide eta protokoloak aurreikusten dituzte.

Baliabideen mobilizazioa bi fasetan egiten da:

II. FASE AUTOMATIKOA:

berehalako mobilizazioa da. Hau da, fase horretan jasota dauden zerbitzu guztiei gertakariari buruzko informazioa helarazten zaie, martxan jar daitezten.

II. FASE GERORATUA:

baliabideak guardiako teknikariaren irizpidearen arabera mobilizatzea da. Hau da, larrialdien arloan eskumena daukan Zuzendaritzako Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko teknikariak egoera aztertuko du eta erabakiko du zerbitzu zehatz bat mobilizatu behar den ala ez; eta baietz erabakitzen badu, zerbitzu hori mobilizatze-ko agindua emango du.

HIRIKO/ LANDAKO SUTEA: SG1			
Zerbitzuak	Baldintzak	Egin beharreko lanak	Mobilizazioa
SOS-DEIAK		Arreta 112 Koordinazioa Zerbitzuen mobilizazioa Kontrola eta jarraipena	AUTOMATIKOA
ERTZAINZTA / UDALZAINGOA (*)		Intzidentetaren kokapena Sarbideen definizioa Sarbideen kontrola Ordena publikoa zaintzea Sarrera- eta irteera-bideak gaitu larrialdietako ibilgailuetarako Ikerketa Laguntza logistikoa Trafikoa eta errepede-sarea kontrolatzea Trafikoaren desbideratzeak zehaztea	
SUHILTAILEAK		Esku hartzeko eta segurtasuneko guneak zehaztea Sutea kontrolatzea eta itzaltea (Zuzendaritza operatiboa) Istripua izandakoan erreskatea / salbamendua (Zuzendaritza operatiboa) Laguntza logistikoa Sutea ikertzea	
UDALA: UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA		Laguntza logistikoa Laguntza teknikoak	
OSAKIDETZA		Asistentzia sanitarioa Istripua izandakoan sailkapena, hasierako egonkortzea eta lekuaidatzea Osasun-baliabideen koordinazioa	
GAS / ARGINDAR / TELEFONO KONPAINAK	Banaketa-lineei eragitea	Horniduraren kontrola Laguntza logistikoa	
ESKU HARTZEKO ZERBITZUA	<ul style="list-style-type: none"> • Utzarazte eta/edo ebakuazio masiboa, ordeko bizitokia behar izatea eragin dezakeena • Hiriguneko sutea, sutea zabaltzen dabilena edo zabaltzeko arriskuarekin • Esku hartzen diren itzalte-zerbitzuak laguntza eskatzea 	Laguntza / Koordinazioa / Zuzendaritza	

* Taktika ezartzeko zehaztutako irizpideen arabera.

HIRIKO/ LANDAKO SUTEA: SG1			
Zerbitzuak	Baldintzak	Egin beharreko lanak	Mobilizazioa
EUSKADIKO TRAFIKOA KUDEATZEKO ZENTROA	Errepede-sareari eragitea	Trafikoaren kudeaketa Trafikoaren egoeraren berri ematea	GERORATUA
ERTZAINZAREN BRIGADA MUGIKORRA	Gehiegizko neurria	Ekipamendu berezia ekartzea Laguntza logistikoa	
ERTZAINZAREN ZAINZTA ETA ERRESKATE UNITATEA: HELIKOPTEROEN ATALA	Gehiegizko neurria	Ekipo eta material teknikoak eramatea Istripua izandakoan ebakuazioa Laguntza logistikoa Ebaluazioa eta informazioa	
EUSKOTREN / ETS / RENFE / ADIF / FEVE / METRO BILBAO	Trenbideei eragitea	Berezoak	
AUTOBIDEAK: AP-8 / AP-68 / AP-1	Autobideei eragitea	Laguntza logistikoa Laguntza teknikoak Laguntza psikologikoa Ostatua	
GURUTZE GORRIA - DYA		Ostatua Laguntza logistikoa	
FORU ALDUNDIKO ONGIZATE SAILA	Ebakuazioa	Ostatua Laguntza logistikoa	
EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN PUBLIKOA	Elikagai-industriari eta/edo biztanle-guneei eragitea	Berezoak	
EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMENA	Ingurumenari eragitea	Berezoak	
URAREN EUSKAL AGENTZIA, URA	Isurketek ibilguei eragin ahal izatea	Berezoak	
UDALA: UDALEKO BABES ZIBILEKO TALDEA		Ostatua Laguntza logistikoa Laguntza teknikoak	
PRENTSA KABINETEA		Berezoak	
METEOROLOGIARIKO EUSKAL ZERBITZUA		Informazio meteorologikoa	

Baliabideen mobilizazio automatikoa eta geroratua SG1 taktikan, "hirian edota hiriritartutako landa-eremuan sortutako sutea" izeneko taktikan.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.3.2. Taktika operatiboen zerrenda orokorra

Hasieran, eman dezake, zenbat eta taktika gehiago egon eta horiek zenbat eta zehatzagoak izan, erantzuna orduan eta hobea izango dela. Baina errealitatean ez da horrela izaten. Kontuan hartu behar dugu xehetasun eta zehaztasunak gehienetan gertakarian tartean sartuta dagoen batek eman behar dizkigula eta pertsona horri elkarrizketa luze eta zehatzek estres handiagoa eragingo diotela, askotan erantzuna ez dakien galderak egingo baitizkiote.

Hori dela eta, saiatzun gara, ahal dela, mobilizazioa gertakiarako egokia izaten, baina batzuetan gertakariari buruzko datu zehatzagoak lortu ahala, mobilizazioa aldatzen joan behar izaten da.

Taktika operatiboak etengabe berrikusten dira, baina egia da eduki orokorra nahiko finkoa izaten dela. Taktika operatiboen zerrenda orokorra eta horiei buruzko zehaztasunak kontsultatu nahi izanez gero, Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren (LAEMZ) web-orrira¹⁷ jo dezakezu, han argitaratuta baitaude.



Esku Hartzeko Zerbitzua bilaketa bat koordinatzen.



Basosutea.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Zerrenda orokorraren barruan talde handi batzuk daude eta horien barruan ere taktika zehatzagoak deskribatzen dira. Talde handiak hauek dira:

1.	Mendia (bilaketak eta erreskateak)	9.	NRBQ eremua (NRBQ materialak tartean dauden gertakariak, baldin eta beste taktika batzuetan jasota ez badaude).	17.	Zirkulazio-istripuak
2.	Ur-ingurunea (bilaketak eta erreskateak)	10.	Gasa (ihesa, sutea, eztanda).	18.	Biktima anitzeko gertakariak (IMV)
3.	Suteak (hirian/landa eremuan, basoan, industrian, hiri-altzarietan)	11.	Ingurumen-kutsadura (atmosfera/ura/lurra)	19.	Aparteko Intzidente Bortitzak (IEV) (ekintza terroristak, bahiketak, mehatxu bortitzak, etab.)
4.	Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsuen garraioa (salgai arriskutsuak tartean dauden trafiko- edo tren-istripuak)	12.	Muturreko meteorologia	20.	Bilaketa eta erreskatea egitura kolapsatuetan
5.	Industria (gertakari bat enpresa batean, salgai arriskutsuak tartean daudela)	13.	Hornidura	21.	Jokabide autolitikoen ondoriozko intzidentek
6.	Trenbidea/ Trena/Tranbia/Metroa (harrapatzea, errailetik irtetea /talka / sutea)	14.	Lur-jausiak, lur-irristatzeak	22.	Lan-istripuak
7.	Hegazkinak (istripua edo gertakaria aireportutik kanpo, edo aireportu barruan)	15.	Ebakuazioa-Ostatatzea	23.	Istripuak bide publikoan
8.	Hiri-ingurunea (hiri-ingurunean pertsonak erreskatatzea, hiri-ingurunean arriskuak antzematea)	16.	Presak	24.	Larrialdi-planen aktibazioak

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Trafiko-istripua, non salgai arriskutsuak bertan daudela.

Taktika zehatz bakoitzaren araberako esku-hartzearen antolaketa berehala bisualizatu ahal izateko, taktika bakoitza lau zutabe hauetan laburtuta dago:

- Mobilizatu beharreko zerbitzuak
- Zer baldintzatan mobilizatzen diren
- Zerbitzu bakoitzak egin behar dituen eginkizun nagusiak
- Mobilizazio mota (automatikoa edo geroratua)



Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko uretan esku hartzeko atalaren mobilizazioa, U3 taktikan "salbamendua barruko uretan (ibai-urtegia)" izenekoan.



Ertzaintzaren Zaintza eta Erreskate Unitateko helikopteroaren mobilizazioa.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.3.3. IMV eta IEV taktikak

“Gertatzeko probabilitate txikiko baina eragin handiko gertakariei” aurre egiteko erantzun-tipologiaren barruan IMV eta IEV taktikak daude. Gertakari horiei siglek ematen diete izena.

Bi egoerak oso larriak direnez, bata ala bestea aktibatzen denean, litekeena da larrialdi-plan bat ere aktibatzea.

BIKTIMA ANITZEKO GERTAKARIA (IMV):

Gertakari horietan eragindako pertsonak asko izaten dira eta eremuko (osasun-eremua edo eskualdea) asistentzia-gaitasuna gaintitu ez arren, hasieran desproporazio handia dago (kuantitatiboa edota kualitatiboa) asistentzia-, logistika- eta antolaketa-beharren eta operatibo egon ohi diren baliabideen artean.

Horren barruan sartzen dira gertakariak, baldin eta tartean istripu izan duten ibilgailu edo autobus asko edo tren, itsasontzi, hegazkin asko tartean badaude edo kolapso estrukturalak badaude; beti ere eragindakoak asko badira: hildakoak, zaurituak edota harrapatutakoak.



Hondarribiako aireportuan, Biktima Anitzeko Gertakariaren simulakroa, 2018an.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)**APARTEKO INTZIDENTE BORTITZAK (IEV):**

Aurrerabideko intentziozko intzidentek dira, indarrez eraginak –egitez edo mehatxuz–, ekintza oldarkor zein bortitzen bitartezkoak, norbanakoek edo taldeek eginak, pertsoneri, ordenari, ondasunei edo ingurumenari garrantzizko kalteak eragiteko modukoak.

Intzidente horien barruan ekintza hauek sartzen dira: ekintza terroristak, bahiketak, mehatxu bortitzak, adierazpen bortitzak eta aurrekoekin pareka daitekeen beste edozein. Ertzaintzak zehaztuko du zein diren aparteko intzidente bortitzak (IEV), zuzenean edo SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak gertaeraren berri eman eta gero.

Bi taktika horietan garatzen diren prozeduren helburua kalteak gutxitzea eta zuzeneko biktimei arreta ematea ez ezik, biktimei eta haien senideei arreta eta informazioa emateko baliabide espezifikoak zabaltzea ere bada, eta horri dagokionean azpimarratu behar da “Harremanetarako Pertsonaren” figura^{20,21} sortu dela, larrialdia konpontzeko prozesu osoan zehar arreta-zerbitzua koordinatzeko funtsezko elementu gisa.

Hurrengo atalean prozedura horietako batzuk aipatuko ditugu.



Gasteizen, Aparteko Intzidente Bortitzaren simulakroa, 2019an.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

2.4. Prozedurak

Planek zein taktika operatiboek egoera askotarako erantzunak ezarri eta antolatzen dituzte, baina ekin-tzak nola gauzaten diren zehaztea falta da. Prozeduren helburua da sistema bat ezartzea, gertakaria kudeatzen duen lan-taldea edozein dela ere, beti modu berean kudeatzen denez, baldintza berberetan beti emaitza bera lortzeko.



LAEMZ PROZEDURAK	PTO-SOS-019	
	Berrikusketa: V-5	
	Data	Orr.
SEVESO PLANA AKTIBATZEA	2020/12/21	1 / 22

1. PROZEDURAREN XEDEA

Honetako kasuetarako prozedura ezartzea: SEVESO instalazio baten barruan (goi mailako instalazioak, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera) zerbait gertatzen bada eta horren ondorioz, SEVESO taktika operatiboa ireki behar bada.

2. TAKTIKA

SEVESO enpresa baten barruan gertatzen den gertakaria/istripua nolakoa den, hiru kasu ezberdin hauek egon daitezke:

Gertakaria/ Istripua	Kanpoan eragina izan ahal du?	Mota	Gertakari /Istripuaren kategoria	Egin beharrekoak
Istripua/gertakaria SEVESO enpresa baten barruan gertatzen da	EZ	Edozein (jatorri kimikoa daukatenak salbu)	-	Gertakariaren izaerari dagokion taktika operatiboa ireki.
		Jatorri kimikoa daukatenak	1	KIMIKA taktika operatiboa ireki
	BAI	Edozein	2 edo 3	SEVESO taktika operatiboa ireki (kusi II. eranskina).

1. taula. Kasuistikak.

SEVESO TO bat irekitzen bada, esan nahi du kanpoan eragina daukan 2 edo 3 kategoriako gertakari bat izan dela eta, beraz, **enpresaren kanpoko larrialdi plana aktibatzea dakar** eta prozedura honen 4. atalean zehaztutako ekintza guztiak egin behar dira.

JARRAIPENA EGITEKO ETA EGUNERATZEKO ARDURADUNA: Esku-hartzeko arduraduna

Larrialdiak erantzuteko prozedura.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.4.1. Prozeduren antolaketa

Prozedurak berrehundik gora dira, SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan erabiltzen dira eta gai-arlo hauen arabera antolatuta daude:

- **Kudeaketa estrategikoa**
- **Aliantzen kudeaketa**
- **Herritarrekiko harremanak**
- **Larrialdien prebentzioa**
- **Larrialdien konponketa**
- **Informazio meteorologikoa**
- **Pertsonen, baliabideen eta bitartekoen kudeaketa**
- **Sistemak, komunikazioak, I+D+i**
- **Kalitatea eta etengabeko hobekuntza**

Talde horiek zer anitzak diren ikusteko, hona hemen talde horien barruan dauden prozedura batzuk: estazio hidro-meteorologikoak kudeatzeko modua, urrutiko itzulpeneko sistema baten aktibazioa deitzaileak gelan ulertzen ez den hizkuntza bat hitz egiten duen kasuetarako, twitter kontuak kudeatzeko sistema, ondoko erkidegoetako Koordinazio Zentroekin komunikatzeko modua edo zetazeo bat gure hondartzetan geratuz gero zein telefonotara deitu behar den.

Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko zentroaren eta, oro har, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren kudeaketaren osagarri praktikoa eta ordenatua dira.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

■ 2.4.2. Biktima eta haien senideentzako informazioa eta arreta

IMV eta IEV taktiketan deskribatzen direnak bezalako egoera larriei aplikatzeko moduko zenbait prozedura daude. Argi dago denak direla inportanteak, baina bi funtsezkotzat jotzen dira eta IMV eta IEV simulakroen parte izan behar dute. Hauek dira:

- **900 112 088 informazio-telefonoa aktibatze eta arreta emateko prozedura²².**

Prozedura horren xedea da 900 112 088 telefonoa edo ezartzen den beste telefono bat martxan jartzea eta kudeatzea, garraio-istripuen, istripu kimiko, erradiaktibo edo biologikoen, hondamendi naturalen, atentatu terroristen edo beste batzuen ondoriozko biktimei eta haien senideei informatzeko, baldin eta babes zibileko agintariek hala izan behar duela erabakitzen badute. Kanal horren helburua da herritarrekin harreman informatiboa mantentzea eta IMVen kasuan, hain zuzen, biktimen senideekin; 112 telefonoa kolapsatu ez dadin eta larrialdietako telefono gisa daukan funtzioetan interferentziarik egon ez dadin.



900 112 088
+ 34 94 428 69 97

BIKTIMENTZAT ETA SENIDEENTZAT ARRETAKO TELEFONOA
TELÉFONO DE ATENCIÓN A VÍCTIMAS Y FAMILIARES
PHONE NUMBER FOR VICTIMS AND RELATIVES

900 112 088 telefonoa larrialdi handietan aktibatu eta zabalzen da, gertakarian eragindako biktimei eta beren senideei arreta emateko.

- **Biktimei eta haien senideei arreta psikosoziala emateko prozedura²³.**

Kasuan kasuko araudian ezarritakoa aplikatu behar denean zein aktibo dagoen planaren zuzendaritzak egokitzen jotzen duenean, biktimei eta haien senideei eman beharreko arreta bermatzeko. Prozedura horren xedea da ezartzea zer ekintza egin behar diren IMV motako larrialdi batek eragindako pertsonen informazioa edota arreta psikosoziala behar izanez gero. Hau da, gertatutako intzidenteak sorrarazi dituen beharrek erantzun koordinatu multidiziplinarra eta alderdi guztiei arreta ematen dena behar izanez gero: informazioaren kudeaketatik hasi eta arlo sozialean zein psikologikoan ikuspegi prebentiboa daukan laguntza emozionalera arte. Harremanetarako Pertsonarentzako laguntza-talde gisa berariaz zabalduetako larrialdi-sistemak emango du arreta hori, esklusiboki “Inpaktu- Fasea” izenekoan.

2. ERANTZUNAREN ANTOLAKETA EGITURATUA (PLANAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK)

Biktimei zein haien senideei eta jarduleei geroago arreta ematea eta horien jarraipena egitea ez dira prozedura honen xedea; eta horregatik, oso inportantea da hasierako arreta horri jarraipena emateko eskumena daukaten administrazio eta zerbitzuei erantzukizunak transferitzeko sistema aurreikustea.



Arreta psikosozialaren simulakroa, "Harremanetarako Pertsona HaPe" aktibatuta. Figura hori LAEMZen Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzuari esleituta dago eta larrialdi-egoeretan biktimei eta beren senideei diziplina anitzeko laguntza ematen die eta zuzendaritza operatiboarekiko koordinazioa ere bere gain hartzen du.



Arreta psikosoziala, Hondarribiako aireportuko Biktima Anitzeko Gertakariaren simulakroan, 2018an.

3



EUSKADIKO LARRIALDIAK
KOORDINATZEKO ZENTROA
SOS DEIAK

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

3.1.

088 telefonotik 112 telefonora

Sarreran aipatu den moduan, 1983. urtean Koordinazio Operatiboko Zentroak martxan jarri ziren, bat Lurralde Historiko bakoitzean, larrialdi edo intzidenteren batean beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzuak dituzten organismo edo erakundeak koordinatzea eta antolatzea lortzeko, baldin eta larrialdi edo intzidente horiek pertsonen, haien ondasunen eta eskubideen segurtasuna arriskuan jar badezakete. Horrelako zentroak lehenengoak izan ziren Espainiako estatuan eta hori izan zen hasieratik modu globalean kudeatuko ziren baliabideak mobilizatu ahal izateko atari bakarra sortzeko lehen saiakera.

Estatuko Gobernuak Koordinazio Zentroak sortzeko Dekretuari³ konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa jarri zion eta eskatu zuen hura deuseztatzeko eta Autonomia Erkidegoak baliatu nahi zuen eskumena Estatuaren titulartasuneko zela deklaratzeko.

Konstituzio Auzitegiak EAren aldeko epaia²⁴ eman zuen eta hauxe adierazi zuen: *“Autonomia Erkidegoa babes zibilaren eremuan txertatuko diren koordinazio operatiboko zentroak ezartzeko eskumenaren jabe da, babes zibila arriskuak, hondamendiak eta lazeriak prebenitzera eta horien ondorioak arintzera eta gutxitzera bideratutako ekintza multzo gisa ulertuta”*. Epaia hori gaur egungo koordinazio zentrozen hasiera izan zen eta autonomia erkidegoetan eratzen hasi ziren.



Gipuzkoako Koordinazio Operatiboko Zentroa.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Dena den, epai horretan bertan ere Konstituzio Auzitegiak “eskumen autonomiko horiei interes nazionaleko goragoko exigentzien muga ezartzen zien” Exigentzia horiek 17/2015¹⁶ Legean definitu eta zehazten dira, beste atal batzuetan azaldu dugun bezala.

Eskumenei buruzko arazoa konpondua, zentro horiek irmo jarri ziren martxan, “SOS Deiak” izena jarri zitzairen eta hiru zifrako zenbaki bakar bat esleitu zitzairen, 088a. Zenbaki hori hasieran batean Ertzaintzarena zen. Telefono horretaz gain, bazeuden larrialdietako telefono-zenbaki gehiago, suhiltzaileena (080 eta 085) eta larrialdi medikoena (061). Horren ondorioz, larrialdiak kanal horietako edozeinetatik sar zitezkeen sisteman.

Zentro horiek ezarrita zituzten eginkizun nagusiak hauek ziren:

- Laguntza eskatzeko deiak jasotzea, alarma kasuan kasuko zerbitzuei helaraztea eta zerbitzu horien ekintzak koordinatzea.
- Jarduera mota guztietan, larrialdi-operazioetan ere, zeuden baliabideak eta mobiliza zitezkeenak koordinatzea.

Zentro horiek 14 urtez jardun zuten 088a erreferentziako telefono-zenbakia zela, harik eta 112 telefono-zenbakiaren bidezko larrialdiko deien arreta-zerbitzua

arautzen duen Errege Dekretua²⁵ argitaratu zen arte; eta, horren bidez, horri buruzko Europako Erkidegoko Kontseiluaren Erabakiaren²⁶ transposizioa egin zen.

Errege Dekretu horretan adierazten zen zerbitzu hori Autonomia erkidegoek emango zutela, eta horretarako Estatuari jakinarazi behar ziotela 112 telefonoaren bidezko arreta-zerbitzu emaila izateko erabakia.



088 telefonoaren logoa.



Inprimagailu eta grabagailuei esker berreskuratu ahal ziren larrialdien kudeaketan hartutako neurriak.



Lehen SOS Deiak zentroko lanpostua.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko uztailaren 15ean erabaki zuen EAEk 112ren arreta bere gain hartzea.

Data horretatik aurrera, 088a indarra galtzen hasi zen eta 112a larrialdi guztietarako erreferentziatzko zenbakia izatera pasatu zen.

2012an 112k beste jauzi kualitatibo bat egin zuen, Euskadiko Segurtasun Publikoa Antolatzeko Legea⁶ argitaratu baitzen eta Lege horrek 15. artikuluan hauxe dio:

“112 telefonoa izango da Euskadiko segurtasun publikoaren sistemako zerbitzu guztiek erabili eta publikizatu beharko duten urgentziatzko telefono bakarra. Zerbitzuok ezingo dute ezarri ez publikizatu 1-1-2az besteko telefonorik horretarako. Nolanahi ere, ezar ditzakete beste telefono batzuk bestelako zeregin batzuetarako”

Adierazpen horren ondorioz, zerbitzuen berezko telefonoak (080, 085 eta 061) desagertu ziren eta larrialdiei aurre egiteko telefono bakar bat geratu zen, 112a.

Larrialdiak Kudeatzeko Legea⁸ eguneratzen duen Legegintzako Dekretuak⁹ Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren eginkizuna berriz definitzen du, honela:

“euskarri teknologiko eta logistikoko oinarri-plataforma da, babes zibileko planek xedatutakoari eta dagozkion taktika operatiboari jarraituz edonolako larrialdietan esku hartu behar duten zerbitzuen jarduna jakinarazteko eta haien arteko koordinazioa errazteko”.



SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa Bilbon.



Koordinazio Operatiboko hiru lurralde zentroak batzea zentro bakar bat izateko, SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

2019an beste gertaera garrantzitsu bat izan zen, eraginkortasun eta efikazia arrazoiengatik, ordura arte zeuden hiru koordinazio zentroak batu baitziren. Orduantxe jaio zen “Euskadiko Larrialdia Koordinatzeko Zentroa”, larrialdia kudeatzeko zentro bakar gisa eta eginkizun hauek dituen:

- A.** Larrialdiko deien arreta-zerbitzua ematea, 1-1-2 telefono-zenbaki bakarren bidez.
- B.** Beharrezko zerbitzuen arteko koordinazioa eta batera-garratasuna erraztea eta horretan teknikoki laguntzea.
- C.** Larrialdiaren garapenari jarraipena egitea, eta horretarako, esku hartzen duten bitartekoei eta baliabideei buruzko informazioa jasoko dute; eta bitarteko eta baliabide horien koordinazioan laguntzea.
- D.** Babes zibileko informazio- eta alerta-sareko transmisioak jakinarazteko, kontrolatzeko eta koordinatzeko sisteman parte hartzea.

- E.** Ekintzak koordinatzeko zentro eta ekintzen koordinazio operatiboko zentro integratu gisa jardutea larrialdi deklaraturako egoeretan, Autonomia Erkidegoaren babes zibileko plana aktibatu eta gero, plan hori aktibatzea formalki erabaki duen babes zibileko agintaritzaren zuzendaritzapean.

Euskadiko Larrialdia Koordinatzeko Zentroa SOS Deiak, beraz, “zentroen zentro bat” da, eta erakundeak eta zerbitzuak mobilizatzen eta koordinatzen ditu, baina zerbitzu horien baliabideak ez ditu zuzenean mobilizatzen, ezta kudeatzen ere. Horrek esan nahi du ez direla anbulantziak, patruila-autoak edo suhiltzaileen ibilgailuak mobilizatzen; larrialdietako jarduerak zerbitzuekin koordinatzen dira, zerbitzu horietako koordinazio operatiboko zentroen bidez.



SOS Deiak Euskadiko Larrialdia Koordinatzeko Zentroa.



SOS Deiak Euskadiko Larrialdia Koordinatzeko Zentroko lanpostua.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

3.2. Koordinazioa eta ekintza-batasuna

Sistemaren helburua da beti koordinazioa eta ekintza-batasuna lortzea. Horretarako, beti eta egoera guztietan, handia zein txikia izan, argi egon behar da lan hori bere gain hartzen duenak antolatzaile-papera daukala, dagokion taktika operatiboan adierazitakoarekin bat. Lidergo hori zerbitzu zehatz bati egokitu beharrik ez dago; aitzitik, egoeraren eta egin beharreko lanen arabera, hartu behar den erantzukizuna kontuan hartuta, gerta daiteke denboran zehar aldatzea.

Koordinazio operatiboa eta ekintza-batasuna, oro har, honela gauzatu behar dira:

Urgentzia edo larrialdi bati aurre egitea administrazio jakin baten edo zerbitzu administratibo jakin baten eskumena denean eta beste zerbitzu batzuen laguntza behar ez denean, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak administrazio edo zerbitzu administratibo horri alarma jakinarazi eta haren jarraipena egin beharko du, besterik ez. Horrelakoetan, zerbitzu eskudunari dagokio lidergoa bere gain hartzea.

Esku hartzeko beste baliabide edo bitarteko batzuen laguntza beharrezkoa denean, Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena daukan sailak SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren laguntza tekniko eskainiko du, koordinazio efektiboa helburu, eta Koordinazio Zentroan dagoen edo horretarako aktibatu duten Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko guardiako teknikariak bere gain



Larrialdietan Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzuak bere gain hartzen du aplikatu beharreko taktikan aurreikusitako koordinazioa.

hartuko du aplikagarria den taktikan aurreikusitako koordinazioa, hau da, esku-hartzaileen arteko ekintza-batasuna lortzeko lana eta SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekiko lotura-lana egitea.

Beharrezkoa bada, sail horretako larrialdiei aurre egiteko teknikariak gertakariaren lekuan bertaratuko dira eta Aginte Postu Aurreratuan integratuko dira, bertan

baitaude istripuan laguntzen duten zerbitzuetako ordezkariak; Gainera, postu horretatik eskuragarri dauden baliabide eta bitartekoen jarduketak zuzentzen dira, esku-hartzaileekin bat etorrira, operazioen ekintza-batasuna lortzeko helburuarekin.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Pertsonen bizitza arrisku larrian dagoenean eta esku-hartzaileen ekintza-batasunari eutsi beharregatik ezinbestekoa denean, Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena duen saileko agintaritzak eskudunak ildo puntual zehatzak ezarri ahal izango ditu larrialdiari aurre egiteko edo, bestela, operazioetako zuzendari bat izendatu ahal izango du esku-hartzaileen artean, haren trebetasuna kontuan hartuta.

Erabaki horiek hartu ahal izango dira, baldin eta premia handiko aparteko arrazoiak badaude. Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko guardiako teknikariak, SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan dagoenak edo SOS Deiak aktibatuta duenak, hartuko ditu erabaki horiek, edo, hori ez badago, zentro horretako txanda-arduradunak.

Mobilizatua izan den Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko guardiako teknikariak, Aginte Postu Aurreratuan integratu ondoren, bere gain har ditzake operazioak zuzentzeko lana.

Erabaki edo jarraibide horiek Aginte Postu Aurreratuan integratutako zerbitzuen arduradunei jakinarazi beharko zaizkie, SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bitartez edo Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko teknikariaren bitartez, baldin eta teknikari hori Aginte Postu Aurreratuan integratuta badago.



Mobilizatua izan den Larrialdietan Koordinatzeko eta Esku-hartzeko Zerbitzuko guardiako teknikariak, Aginte Postu Aurreratuan integratu ondoren, bere gain har dezake operazioak zuzentzeko lana.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

3.3. Antolaketa operatiboa (arreta-mailak)

Koordinazioaren barruko kudeaketa, Koordinazio zentroarena zein eratzten den Aginte Postu Aurreratuan (APA) erabakitzen diren ekintzen kudeaketa, guztiz sinkronizatutako bloke bat da eta lau egituraketa-mailatan antolatuta dago:

1. TELEFONO BIDEZKO KUDEAKETA
2. GERTAKARIAREN KUDEAKETA
3. LARRIALDIETAN KOORDINATUTA ESKU HARTZEA
4. CECOP/CECOPI (Krisi-mahaiak)



SOS Deiak Euskadiko Larrialdia Koordinatzeko Zentroaren panoramika.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.3.1. Telefono bidezko kudeaketa

Sistemaren lehen maila da. Lehen arreta eta lehen zuzeneko harremana da laguntza eskatzeko deitzen duen pertsonarekin.

Larrialdiei aurre egiteko lehen maila honetan, oinarri-zko helburuak hauek dira:

1. Zer gertatzen den jakitea.
2. Non gertatzen den jakitea.

Zer gertatzen den jakitea erraza eman badezake ere, lan zaila izaten da, denbora laburrenean ahalik eta informazio gehien lortu behar izaten baita; eta are zailagoa kontuan hartzen badugu litekeena dela deitzailea antsietate-egoeran egotea edo batzuetan gaixotasun larri bat izan dezakeela edo larri zaurituta egon daitekeela.

Deitzaileak ematen duen kokapenari buruzko informazioaz gain, kokapena zein den ere automatikoki jakin dezakegu, baldin eta deia telefono finko batetik egin bada. Mugikorraren bidez egindako dei baten kokapena jakin dezakegu, smartphoneek GPS kokapena bidaltzeko aukera ematen dutelako.



Kudeaketa telefonikoa SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Maila honetan laguntza-eskaerak hiru bidetatik sar daitezke:

- **112 telefonora ahots bidez zuzenean deitzea.**

Hau da, pertsona batek bere telefonoak doakoa eta unibertsala den 112 telefonoa markatzen du.

- **Deia eCall sistemaren bidez egitea.**

EBko auto berri guztiek 2018ko martxoaren 31tik aurrera derrigor izan behar dute sistema horretaz baliatzeko ekipo bat. Sistema auto barruan doazen pertsonak zuzenean deitzen dutenean aktibatzen da edo, bestela, modu automatikoan istripu larri bat dagoenean (airbagak ateratzen dira) eta orduan eki-poak dei geolokalizatu bat bidaltzen du. Deia doakoa da eta Europa osoan dauka estaldura.

- **112 SOS DEIAK App-aren bidez deitzea.**

Aplikazio horren bidez, 112ra ahots bidez dei geolokalizatu bat egin daiteke edo ahotsik gabe sartzea ere badago, aurretik ezarritako larrialdien ikonoak erabiliz. Ikono horiek hasieran lau taldetan banatuta (istripua, larrialdi medikoa, sutea eta lapurreta-erasoa) agertzen dira, baina zabal daitezke zehaztasun handiagoa izateko. Gerora, txataren bidez larrialdia zein den gehiago zehaztu daiteke.

Lehen maila honetan eginkizun nagusiak hauek dira:

- Deitzen duen pertsonari arreta ematea.
- Gertakariari buruzko elkarrizketa eta dokumentatzea.
- Gertakaria taktika operatiboen arabera sailkatzea.
- Sistemaren arabera automatikoan aktibatu behar diren agentziei deiaren karta telematikoki bidaltzea
- Lehen deiaren ondoren, gertakari berari buruzko dei gehiago jasotzen badira, beharrezkoa bada, informazioa osatzea eta deitzaileei jakinaraztea erantzuna martxan dagoela.

Lan horiek eginda, operadoreek jarraitzen dute laguntza-dei gehiago jasotzen. Maila hau zerbitzuen mobilizaziokoa da, baina ez haiekiko koordinaziokoa. Dena den, argi dago, deia atari bakar batetik sartzen denez, kudeaketa hasieratik ondo bideratuta doala.

Lehen maila honetan, urtean 800.000 eta 900.000 deiri bitartean ematen zaie arreta eta horrek esan nahi du egunean 2.200 eta 2.400 dei bitarteko ratioa dagoela, baina 3.000 deitik gora jasotzen diren egunak ere badaude, egoera zehatzetan, normalean muturreko meteorologia dagoenean.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.3.2. Gertakariaren kudeaketa

Bigarren mailari gertakariaren kudeaketa deitzen diogu. Kudeaketa-maila honen oinarritzko helburuak hauek dira:

- Informazioa koherentea dela (agian informazioa modu ezberdinetan heldu da) eta abian jarritako taktika egokia dela egiaztatzea.
- Mobilizatutako zerbitzuak egokiak direla egiaztatzea.
- Zerbitzuak automatikoa mobilizatzea (ez dute sistema telematikoa).
- Modu geroratuan mobilizatu behar diren zerbitzuak mobilizatzea.
- Esku-hartzean laguntzea eta horren jarraipena egitea, amaitzen den arte.
- Eskatuko balitz, Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzuko teknikariari informatzea edo mobilizatzea.
- Herritarrei goiz alertatzeko sistemak erabiltzea, baita kasuan kasuko abisuak kudeatzea ere.

Kudeaketa-maila honetan funtsezko lanak dira dena behar bezala egiten ari dela egiaztatzea eta esku-hartzean laguntzea, lekuan bertan dauden zerbitzu jarduleek behar dituzten kudeaketak eginez. Hori guztia, Zerbitzuetako Koordinazio Operatiboko Zentron bidez eta haiekin informazioa etengabe trukatzeko eta eguneratzen.

Bigarren maila honetan, urtean 200.000 eta 230.000 gertakari bitartean ematen zaie arreta eta horrek esan nahi du egunean 550 eta 620 gertakari bitarteko ratioa dagoela, baina 800 gertakaritik gora izaten diren

egunak ere badaude, egoera zehatzetan, normalean muturreko meteorologia dagoenean.

Hiru arrazoi hauek azal dezakete jasotako dei-kopuruaren eta kudeatutako gertakari-kopuruaren arteko aldea: Dei batzuk okerrak dira, hau da, ez dira larrialdietakoak; beste batzuek agentzia bakarraren arreta behar dute eta beraz ez da taktikarik ireki behar; eta beste batzuetan, dei asko jaso arren, denak gertaera berari buruzkoak dira.



Gertakariaren kudeaketa SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.3.3. Larrialdietan Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzua


Zerbitzu horren funtsezko misioa da koordinazio-gelan zein gertaeren lekuan bertan koordinatu eta zuzendu behar diren larrialdi eta gertakarietan modu aktiboan esku hartzea: edozein arlotako erreskate eta bilaketetan, sute industrialetan, salgai arriskuak tartean dauden istripuetan, uholdeetan, gertakari kimikoetan eta arrisku larriko, hondamendiko edo lazeria publiko egoeretan.

Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko espezialistek, gelan bertan modu presentzian nahiz urrutitik edo Aginde Postu Aurreratuan (APA) bertan, eginkizun hauek bete behar dituzte, besteak beste:

- Esku-hartzean koordinazioko erreferente teknikoak izatea eta koordinazio-gelan daudenean gela horretako burua izatea.
- Mobilizazio geroratuak zehaztea.
- Udal-agintariei laguntzea beren udalerriko gertakarietan, beharrezkoa denean.
- Operazioak gertaeraren lekuan bertan (APA) koordinatzea, taktika operatiboetan ezarritakoaren arabera.
- Herritarrei larrialdi egoeretan presazko abisuak eman behar bazaizkie, horiek agintzea.

- Aparteko baliabide eta bitartekoen mobilizazioa proposatzea.
- Larrialdi planen aktibazioa proposatzea.
- Harremanetarako Pertsonaren (HaPe) figura^{20,21,27}

Zerbitzua 24 orduz x 365 egunez ematen da, eta horretarako, larrialdien kudeaketan eta koordinazioan oso espezializatuta dauden bi teknikari daude esleituta.



Larrialdietan Koordinatzeko eta Esku Hartzeko Zerbitzua SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.3.4. CECOP/CECOPI (Krisi-mahaiak)

Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak ematen duen azken maila hau da. Ekintzak Koordinatzeko Zentroa (EKZ) aktibatzen den larrialdi-planaren zuzendaritzaren aginte-postua da, eta informazioa zabaltzeko, koordinatzeko eta zentralizatzeko behar besteko gaitasuna eta ekipamendua dauka, larrialdiaren egoera ebaluatzeko eta, era berean, larrialdian aplikatu behar diren erabakiak jakinarazteko, baita planaren zuzendaritza eta zuzendaritzako edo kontrolako gainerako zentroak zuzeneko harremanetan mantentzeko ere.

Behar besteko azpiegitura dauka, honetarako:

- A. Informazio-zentro iraunkor gisa jarduteko
- B. Alarmen eta alerten zentro hartzaile eta igorle gisa eta beharrezkoak diren datu-base eta informazio-sistema guztien kudeaketa-zentro gisa jarduteko.
- C. Zuzendaritzari laguntzeko erabakiak hartzeko prozesuan eta aginduak helarazten eta betearazten; eta horretarako, jasotako informazioa prozesatzen du.

Beharrezkoa izanez gero, Ekintzak Koordinatzeko Zentroa (EKZ) Ekintzak Koordinatzeko Zentro Integratu (EKZI) bihurtuko da zentro horretan administrazio autonomikoko zein Estatuko administrazioko agintariak integratzen direnean, larrialdiak zuzentzeko eta koordinatzeko nahiz, autonomiaz gaindiko intereskotzat jotzen denean, ardurak transferitzeko.

Planaren zuzendaritza, Aholku Batzordea eta Zuzendaritzaren egituraren barrukoak elkartzen dira, ahal bada, Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan, horretarako diren geletan, hizkera arruntean “Krisi-Mahaia” deitutakoe-tan, hain zuzen.

Ekintzak Koordinatzeko Zentro Integratua eratzen ez bada, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren instalazioetan badaude beste zentro batzuei informatzeko sistemetakako loturak eta luzapenak, lurralde

bakoitzean bat, eta bideokonferentzia eta informazioa partekatzeko sistema bat erabil daiteke, larrialdi egoera batean joan-etorri luzeak egin beharrik gabe.



Krisi-Mahaia, 2020an Zaldibarko zabortegia eraitsi ondoren.

3.4. Kudeatzeko eta koordinatzeko tresnak

Ez dago ehunka mila telefono-dei eta hamarka mila gertakari kudeatzerik, etengabe sortzen doazen informazioak eta lanak ordenatzeko eta sistematizatzeko kudeaketa-sistema modernoak izan gabe. Gainera, diziplina anitzeko gertaeretan, bereziki, gertaera larrietan eta konplexuenetan, koordinazio on bat lortzeko, esku-hartzaileen ezagutza eta borondate ona ez ezik, tresna komunak izatea ere behar-beharrezkoa da, eta tresna horiek ahalbidetu behar dute elkarren artean etengabe lotuta egotea, denek informazio bera izatea eta mobilizatutako zerbitzuek informazioa emateko eta osatzeko aukera izatea.

SVAEn zenbait tresnak ahalbidetzen dute koordinazio hori. Nagusiak hauek dira:

- **EUSKARRI SISTEMA INFORMATIKOA**
- **ENBOR KOMUNIKAZIO-SAREA**
- **IRUDIAK KUDEATZEKO SISTEMAK**
- **AK KOORDINAZIO-KAMIOIA (Aginte Kamioia)**

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK**■ 3.4.1. Euskarri sistema informatikoa**

“Euskarri”²⁸ intzidenteen eta baliabideen kudeaketa-sistema informatikoaren izena da. Siemensen SITREM plataforman oinarrituta dago eta, berezko garapenen bidez, larrialdien koordinazioari euskarria ematen dio denbora errealean.

Agentzia anitzeko sistema bat da eta gaur egun, zuzenean edo pasabideen bidez, agentzia edo zerbitzu hauei kudeaketa errazten die:

- **Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa SOS Deiak**
- **Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa**
- **Suteen Prebentzio, Itzaltze eta Salbamenduko Zerbitzuak**
- **Ertzaintza**
- **Osakidetza Emergentziak**
- **Udaltzaingoak**



Lanpostua Euskarrirekin.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Sistema osoa eta konplexua da eta haren ezaugarri nagusiak hauek dira:

- Zerbitzuetara guztiz bideratuta dago, deia jasotzen denetik gertakaria amaitu eta itxi arte. Den-dena denbora errealean.
- Agentzia bakoitzak bere informazioa sartzen du eta beste agentzia batzuekin partekatu dezake, modu dinamikoan, une bakoitzean egoki irizten dion informazioa.
- Sistemaren integratuta dauden agentziekin koordinatzen da, barruko zein kanpokoekin, “informazio pasabideak” izeneko bidez informazio-truke automatikoak eginez.
- Pasabideak horrela egiteko, web-zerbitzuak ditu.
- Erabiltzailearen interfaze grafiko indartsua dauka (leihoak, menuak, botoiak, inprimakiak, etab.).
- Telefonia-sistemaren integratuta dago. Sartzen diren deiak posizionatzeko sistema bat dauka.
- Irrati digitala (Enbor Sarea) estatusetan, mezuetan eta posizionamenduan integratzen du.
- Kartografia guztiz integratuta dago, dokumentuen kudeaketa bezala eta gertakariak posizionatzen ditu. Kartografia beti eguneratuta egoten da, Lurralde Antolamenduaren gaineko eskumena daukan Sailak eguneratuta.
- Lana lurraldeka konfiguratu daiteke, eta operadore bakoitzaren lan-arloak definitu daitezke.
- Taktika operatiboak integratzen ditu eta, behin taktika zehaztuta, mobilizazio automatikoak eta geroratuak adierazten ditu. Erabaki-zuhaitz bat ere badu, azkenean taktika zehazteko. Ekintza planak ere integratzen ditu.
- Ele bietan dago eta, beraz, oinarri-plataforma euskaraz edo gaztelaniaz jar daiteke.
- Informazioaren segurtasun handia dauka, erabiltzaileen profiletan oinarrituta. Sarreraren auditoria eta kudeaketen arrastoa.
- 112 sistemaren sartzeko hiru moduak daude integratuta (zuzenean 112 telefonoaren bidez, e-call bidez eta 112-SOS DEIAK APP-aren bidez).
- Posta elektronikoen, SMSen eta alderantzizko 112-mezen bidalketa integratuta dago.
- Ezagutzaren kudeatzaile bat ere badauka, dokumentuen eta prozeduren gaineko kontsultak egiteko.
- Autobabes Planen Erregistrorako sarbidea ere integratuta dago.
- Informazioa iragazkiak aplikatuta bila daiteke.
- Baliabideen eta bitartekoaren egoerari buruzko laburpenak egiten ditu.
- Txostenak eta estatistikak egiteko aukera ematen du.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Prozedura arruntean kudeaketa-tresna handi bat bada ere, argi dago sistema informatiko oso ona eta oso indartsua izan arren, sistema hori jausteko aukera egon badagoela.

Horrelakoetarako, kontingentzia-maila batzuk daude. Lehen kontingentzia-maila “Euskai” izeneko sistema da. Horrek ez ditu sistema integralaren funtzionalitate guztiak izaten, baina larrialdiei arreta ematen jarraitzeko aukera ematen du ia-ia Euskarrin bezala, bistan itxura berdina baitu. Haren ezaugarriak hauek dira:

- **Agentzia anitzekoa izaten jarraitzen du, Euskarrin definitutako artean.**
- **Euskarriren interfaze bera dauka. Horregatik, ia ez da prestakuntza gehigarri behar.**
- **Euskarrin sortutako gertakari berberen gainean lan egiten da.**
- **Sistema jausi aurretiko gertakariak kontsulta daitezke.**
- **Euskarri sistemara itzultutakoan, ez da beharrezkoa Euskain sortutako gertakariak iraultzea.**
- **Baliabideak eta bitartekoak mobiliza daitezke.**
- **Telefoniarekiko integrazioa ere badu.**
- **Informazio geografikoko sistema erabiltzeko aukera ematen du.**

Bigarren kontingentzia-maila lokalean lan egitea da. Beraz, gero, ezinbestekoa da informazioa iraultzea.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.4.2. Enbor komunikazio-sarea

Segurtasun Saileko Komunikazio Sareak (RDRM) euskarria ematen dion zerbitzuetako bat da Enbor Sarea²⁹.

Sare horrek garraio-bide gisa jarduten du, hari esker EAEn dauden oinarri-estazio transmisore/hartzaileak konmutazio-zentro erredundanteekin interkonektatuta egon daitezkeelako. Gaur egun, zentro horiek Erandion eta Vitoria-Gasteizen daude.

Kommutazio-zentroetan interkonezio guztiak egiten dira, RDRMren bidez egindako banakako deiak ezartzeko zein taldekakoak.

Sareko oinarri-estazioen erdiak Erandioko konmutazio-zentrorara konektatuta daude eta beste erdiak Vitoria-Gasteizkora. Konfigurazio horri esker, konmutazio-zentro bat jausiz gero, sareak funtzionatzen jarrai lezake eta komunikazioek operatibo jarraituko lukete lurraldearen ia %100ean.

Oinarri-estazioen zabalpena eginda dago estazio bakoitzaren estaldura-eremuak ondokoaren estaldura-eremuaren zati bat ere hartzeko moduan. Horrela, estazio batek huts egingo balu edo, are gehiago, konmutazio-zentro bati esleitutako oinarri-estazio guztiek huts egingo balute, komunikazioek, estaldura mailari dagokionean apur bat eskatu arren, operatibo jarraituko lukete.

Agentzia desberdinetako taldeen arteko deien pribatasuna eta segurtasuna bermatuta dago, sarearen egiturari berari eta diseinuari esker.

Edozein agentziatako talde bati ezin dio beste talde batek entzun, biak agentzia berekoak izan arren ere ez. Talde desberdinen arteko interkomunikazioa beharrezkoa bada, sistemak hori egiteko baliabideak ematen ditu, behar diren akordioen eta protokoloen bidez.

Sarearen helburu nagusiak hauek dira:

- **Segurtasun Sailaren menpeko zerbitzuei komunikazio seguruak ematea.**
- **Larrialdiren bat badago, erakunde, enpresa edo instalazio estrategikoekin komunikazioak bermatzea.**
- **Larrialdiren bat badago, EAEko beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa bermatzea, zerbitzu profesionalekin zein boluntarioen zerbitzuekin.**



Koordinatze eta Esku Hartzeko Zerbitzuko ibilgailuek Enbor Sarea komunikazio sareko igorgailuak dituzte.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Sarearen erabiltzaile nagusiak hauek dira:

- Ertzaintza
- Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa SOS Deiak
- Foru Aldundiak (SPEIS eta mendi zerbitzuak)
- Udalak (REM, Udaltzaingoak eta SPEIS)
- Osakidetza Emergentziak
- Babes zibileko boluntarioak
- Enpresa estrategikoak (REI eta RETRA)

Guztira, sistemaren erabiltzaileak 15.000tik gora izaten dira eta hilean transferentziak 800.000tik gora.

Hona hemen, ezaugarri teknikoetako batzuk:

- Teknologia estandarra probatuta eta kontrastatuta.
- TETRA (Terrestrial Trunked Radio) sisteman oinarrituta.
- Terminalen hornitzaile asko.
- EAEn estaldura globala (126 oinarri-estazio eta 47 errepikagailu).
- Eremu berezien estaldura (metroa, eraikinak, tunelak).
- Pasabideak, gune zailtan estaldura izateko.
- 72 kanal RF duplex esleituta.
- Komunikazioen konfidentzialtasuna (erabiltzaileen autentifikazioa eta enkriptazioa)
- Datu-mezuak gertakarien kudeaketa-aplikazioekin integratuta.
- Ibilgailuen eta pertsonen lokalizazio automatikoa.
- Komunikazioen grabazioa eta datuen ustiapena.
- Floten planen, lan-taldeen eta kontingentzia-planen definizioa.



Enbor Sarea komunikazio-sareak SVAEko agentzia guztien arteko koordinazioa ahalbidetzen du

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Larrialdien kudeaketaren arloan, Enbor Sarea zenbait azpi-saretan antolatuta dago, hona hemen azpi-sare horiek:

RESPEIS:

Sarearen helburu nagusia da Euskadiko SPEIS guztietarako sare bakarra izatea, zerbitzu horiek guztiek Euskadiko edozein puntutan lan egin ahal izan dezaten. Horri esker, zerbitzu horiek moldakorragoak izango dira edozein unetan eta edozein lekutan gerta litezkeen larrialdi egoeretan laguntza eman ahal izateko. Halaber, larrialdia badago, zerbitzu horiek agindu- eta kontrol-kanalak parteka ditzakete beste zerbitzu eta erakunde batzuekin, elkarren arteko koordinazioa bermatzeko.

REMENDI:

Sare horren helburu nagusia da Euskadiko Mendi Zerbitzu guztietarako sare bakarra izatea, zerbitzu horiek guztiek Euskadiko edozein puntutan lan egin ahal izan dezaten, eta, beharrezkoa balitz, Euskadiko edozein SPEISen laguntza jaso ahal izateko. Halaber, larrialdia badago, zerbitzu horiek agindu- eta kontrol-kanalak beste zerbitzu eta erakunde batzuekin partekatzeo aukera izan behar dute, elkarren arteko koordinazioa bermatzeko.

REM.**Udal Larrialdiko Sarea:**

1984ko uholdeen ondoren, udal bakoitzean oinarri-emisora bat jarri zen, bateria erantsita daukana; telefonia jausi edo gainezka eginez gero, udalak inkomunikatuta ez geratzeko. Gaur egun, sistema hobetu eta berritu da eta udal bakoitza taldean adskribatzea ala ez borondatezkoa da.

REI.**larrialdi industrialen sarea:**

Horren helburua da SEVESO arloko enpresa guztiak komunikatuta egotea.

RETRA.**Instalazio eta zerbitzu estrategikoen larrialdi-sarea:**

zerbitzu estrategikoen kudeaketa-zentroak eta sarean sartzen joan daitezkeen beste batzuk komunikatuta egon daitezela, esaterako, hauek: aireportuak, portuak, errepideak eta autobideak kontrolatzeko zentroak, trenak (ADIF, EUSKOTREN, EUSKOTRAN), SASEMAR.

OSAKIDETZA EMERGENTZIAK:

Osakidetza Emergentziak larrialdi-egoerei erantzuna emateko oinarrizko zutabeetako bat da. Hori dela eta, Enbor Sareko emisora dituzten sortzen diren esku-hartzeetan ezinbestekoa den ekintza-batasunari eusteko. Halaber, larrialdia badago, zerbitzu horiek agindu- eta kontrol-kanalak beste zerbitzu eta erakunde batzuekin partekatzeo aukera izan behar dute, elkarren arteko koordinazioa bermatzeko.

BABES ZIBILEKO BOLUNTARIOAK:

Segurtasun Sailarekin lankidetzan lan egiten dute, arrisku kolektibo handiko, hondamendiko eta lazeria publikoko egoerak daudenean, edo beste edozein egoeratan, Sailaren iritziz, haien lankidetzaren beharrezkoa denean. Hori dela eta, Enbor Sareko emisora dituzten sortzen diren esku-hartzeetan ezinbestekoa den ekintza-batasunari eusteko. Halaber, larrialdia badago, zerbitzu horiek agindu- eta kontrol-kanalak parteka ditzakete beste zerbitzu eta erakunde batzuekin, elkarren arteko koordinazioa bermatzeko.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.4.3. Irudiak kudeatzeko sistemak

Gaur egungo teknologiari esker, larrialdi jakin bat kudeatu behar duten horien “egoeraren kontzientzia” nabarmen hobetu daiteke, unean uneko irudiak eman dakizkiekeelako.

Irudi horiek lana errazten dute:

- **Egoeraren pertzepzio zehatza ahalbidetzen dute.**
- **Horretan gertatzen diren aldaketak berehala ikus daitezke.**
- **Aldaketa horien eragina ulertzen laguntzen dute.**
- **Etorkizun hurbileko egoera zein izango den lehenago proiektatzeko aukera ematen dute.**

Larrialdiak kudeatzeko sisteman aurrerapen handiak txertatzen joan badira ere, gertaeren denbora errealeko bisualizazioa ondo garatu beharreko gai teknologikoetako bat da. Hala ere, bideo-lan mota hori oso araututa dago eta horregatik nahitaezkoa da hori erabiltzeko arauak zorrotz betetzea.



SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko krisi gelan dagoen videowall-a.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Horiek horrela, Segurtasun Sailak irudiak larrialdien kudeaketan txertatzeko eta Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan bisualizatzeko prozedurak ditu, honako hauek datozen irudiak, hain zuzen:

- **Trafiko kamerak: EAEko errepide eta autobideak**
- **Udal kamerak: hiru hiriburuetako udalak**
- **Metro Bilbaoren kamerak**
- **Aurreikus Daitezkeen Arriskueterako Baliabideen (ADAB) kamerak ekitaldi handietan**
- **Ertzaintzaren droneen kamerak**
- **Ertzaintzaren helikopteroaren kamera**
- **Sare sozialen monitorizazioa**
- **Whatsapp bidez bidalitako irudiak**
- **Posta elektronikoz bidalitako irudiak**

Larrialdiaren kudeatzaileek, irudiei esker, egoeraren kontzientzia hobea izan dezakete, lehenago izango dute eta zehatzagoa izango da; eta horren ondorioz, galderen eta elkarrizketen kopurua txikiagoa izango da eta, beraz, komunikazio eta deskribapenetan errore gutxiago egongo dira.



SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroko gela operatiboan dagoen videowall-a.

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

■ 3.4.4. Koordinazio-kamioiak AK (Aginte Kamioia)

Jakina da Aginte Postu Aurreratua (APA) egitura operatiboaren barruko organo bat dela, postu hori esku-hartze eremutik hurbil egoten dela, jarduketan operatiboak zuzentzen eta koordinatzen dituzten ekintza-taldeetako buruez edo arduradunetz osatuta dagoela, eta horiek Euskadiko Larrialdia Koordinatze Zentroarekin etengabe harremanetan egoten direla.

Gertaera zehatz batzuetan Aginte Postu Aurreratua eratu behar denean, arazoa izaten da koordinazio hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura ditudun ala ez.

“Aginte Kamioia” (AK), Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko teknikariek zuzenduta (3. koordinazio-maila), arduratzen da eginkizun horretaz, hau da, baliabide tekniko espezializatuak emateaz zein APAr bere lana egin ahal izateko leku egoki bat emateaz.

Mercedes-Benz txasis baten gainean dagoen eta 20 tona pisatzen duen kamioi hori egokitua izan da larrialdietan Aginte Postu Aurreratu gisa jarduteko. Hori dela eta, karrozeria furgoi itxi batena bezalakoa da, baina barruko aldea egokitu da, karga-eremua honela banatuta geratzeko:

- **Krisi-mahaiaren gela (12,65 m²ko azalera):** ibilgailuaren atzeko eremua da eta, hor, barruan komun txiki bat ere badago. Erdiko eremuan bileretarako mahai bat dago. Eskuineko alboan, abian duen noranzkoan, sartzeko ate bat dago.
- **Koordinazio-gela (14,35 m²ko azalera):** kabinaren atzeko eremua da. Lau leku daude eta, hor ere, eskuineko alboan ate bat eremu horretan sartzeko.



AK koordinazio-kamioia (Aginte Kamioia).

3. EUSKADIKO LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROA SOS DEIAK

Komunikazio-ekipamendu oso-oso dauka, arlo nagusietan (informatika, telefonia eta irratia) zerbitzu osoa emateko. Enbor sareak, telefono bidezko konexioak eta satelite bidezkoak ere funtzionatzen dute. Euskarri plataforma informatikoa integratuta dago eta ofimatika-, kartografia- eta informazio-programa asko ere bai.

Sorgailu-sistema bat ere badu, noski, lehen aipatutako sistemen funtzionamendurako eta argiztapenerako, eta beraz, edozein egoeratan eta edozein lekutan autonomoa izaten da.

Horretaz gain, beste ekipamendu hauek ere badaude: kanpoko kamerak, bideo-erreproduzigailuak eta grabagailuak, satelite bidezko irudi-hargailuak, telefono lineak, eta operazio-, euskarri- eta bulego-ekipoak. Horretan lan egiten duten pertsonak eroso egoteko materialak (aulkiak, mahaia, mikrouhin labea, hozkailua, etab.) ere badaude eta beste material hauek ere bai: kartografia-, datu baseak, eremu desberdinetako larrialdi-fitxak, etab. paperean zein formatu informatikoan.



AK Koordinazio kamioiaren barrualdea.

4

HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren alderdi garrantzitsuenetako bat “autobabesa” izaten da. Horregatik, Euskadiko araudiak^{6,8,9} bereziki eta behin eta berriz azpimarratzen du. “Autobabesa” hitza Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan⁹ 46 aldiz agertzen da, Euskadin babes zibilaren barruko alderdi horri ematen zaion garrantziaren adierazle argia.

Askotan aipatzen da eta, beraz, autobabesaren eremuan ekintza asko proposatzen dira, baina horietan guztietan informazioa izaten da giltzarria. Informaziorik gabe autobabes-ekintzak sortzerik ez dago. Horregatik, SVAEn herritarrentzako informazioaren kudeaketak garrantzi handia dauka.

Larrialdietan informazio-sistema on baten alde aurretiko ezaugarriak hauek dira:

- **Aldez aurretik ezarrita egotea eta berehala aktibatzeko modukoa izatea.**
- **Ohiko gertaerarako eta apartekoetarako aurreikusita egotea.**
- **Errutinaz erabilia izatea.**

Baina, aurrekoaz gain, informazioak, erabiltzaile gehienei heltzeko eta eraginkorra izateko, alderdi hauek ere kontuan hartu behar ditu:

- **Denen eskura egon behar du.**
- **Azkarra izan behar du.**
- **Kanalek beti irekita egon behar dute.**
- **Informazioak egiazkoa eta osoa izan behar du.**

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

4.1. Informazio- eta alerta-sarea

Argi dago, ezezaguna denari buruz informatzerik ez dagoela, eta horregatik Euskadik informazio- eta alerta-sare konplexu bat dauka, bereziki, meteorologiari dagokionean, eta, horri esker, benetan zer gertatzen ari den jakin ahal du eta, beraz, beharrezkoak izan daitezkeen prebentzio- eta autobabes-neurriak aurreratu ahal ditu.

Informazio- eta alerta-sare hori hiru ataletan bana dezakegu:

- **INFORMAZIOAREN JASOTZE AUTOMATIKO ETENGABEA**
- **ABISU, ALERTA ETA ALARMA METEOROLOGIKOEN SISTEMA**
- **LARRIALDI KIMIKOEN ABISU-SISTEMA**

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

■ 4.1.1. Informazioaren jasotze automatiko etengabea

Informazioa hartzeko sistema batzuk daude, baina nabarmendu behar da eremu ozeano-hidro-meteorologikoa, gaur egun hor 130 estazio daudelako, mota desberdinetakoak:

- Lurreko estazio hidro-meteorologikoak (hauekin lankidetan: GFA, BFA, AFA eta URA) eta horiek hamar minutuan behin hartzen dute informazioa
- Kapilduiko Radar Doppler duala
- Plataforma ozeano-meteorologikoak
- Ur sakonetako itsas buiak
- Bereizmen handiko deskarga elektrikoak detektatzeko sarea
- Frekuentzia handiko kostaldeko radarren sarea
- Meteosat hargailua
- Zunda globoen jaurtigailu automatikoa (stand by-n)
- Disdrometroen sarea

Sistema horietatik datorren informazioa denbora errealean ikus daiteke Euskalmeteko web-orrian³⁰.

Sare hidro-ozeano-meteorologikoa parametro meteorologiko eta ozeanografiko batzuei buruzko informazioa lortzea ahalbidetzen duen sensorizazio-sistema bat da. Lortutako informazioa funtsezkoa da



Kapilduiko Radar Doppler duala.

muturreko fenomeno meteorologikoen iragarpena eta jarraipena egiteko, eta herritarrei autobabeserako gomendioak helaraztea ahalbidetzen du.



Iarduiako (Araba) estazio meteorologikoa .

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA



Itsas buia.



Euskalmet- Euskal Meteorologia Agentziak, SOS Deiakekin etengabe koordinatuta, muturreko fenomeno meteorologikoak etorriko diren iragartzeko lan egiten du.


4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

■ 4.1.2. Abisu, alerta eta alarma meteorologikoen sistema.

EMMA (European Multi-service Meteorological Awareness) proiektu europarrean oinarrituta dago eta haren helburu nagusia da herritarrei ematen zaien informazioaren formatua sinkronizatzea, muturreko fenomeno meteorologikoen lotutako arriskuaren pertzepzioa Europa osoan antzekoa izan dadin. Horretarako, fenomeno bakoitzarekin lotuta, kolore berdea, horia, laranja eta gorria erabiltzen dira, fenomeno bakoitza bere aldetik aztertu eta partikularizatu ahal izateko.

Sistema hori dagokion LAEMZen prozeduran³¹ deskribatzen da, eta fenomenoaren arriskugarritasun-maila neurtzeko berezko filosofia bat erabiltzen da; izan ere, atalaseen arabera neurketa tradizionalaren ordez, aurreikusten den inpaktuaren arabera neurketa egiten da.

Fenomeno baten arriskugarritasun-maila eta horrek izan dezakeen inpaktua zehaztuta, informazioa bidaltzen da ekitaldien kudeaketa-taula honetan adierazten denaren arabera: Horrez gain, informazioa, “abisuak nahieran” sisteman³² izena emanda dauden guztiei posta elektronikoz bidaltzen zaie, SVAEko zerbitzuei SMSren bidez, eta web-orrian eta twitterren ere jartzen da.



Muturreko fenomeno meteorologikoen kolore egoeraren eskema

	Berdea	Horia ABISUA	Laranja ALERTA	Gorria ALARMA
Egoera	Ohikoa	Maiz	Gutxitan	Ohiz kanpokoa
Arriskua	ia nulua	Txikia	Ertaina	Handia
Errepikatze-danbora		< Urte 1	~ Urte 1	>> Urte 1
Twittera	Ez	Bai	Bai	Bai
Emaila	Ez	Bai	Bai	Bai
SMS	Ez	Ez	Bai	Bai
Aholkuak	Ez	Ez	Bai	Bai
Prentsa oharra	Ez	Ez	Bai	Bai
Planaren aktibazioa	Ez	Ez	Aztertze	Bai

Muturreko meteorologiari buruzko semaforizazioa dela eta, egoeraren eskema.



Abisuak Nahieran zerbitzuaren bidez, edozeinek jaso ditzake bere helbide elektronikoan Segurtasun Saileko abisu, alerta eta alarma meteorologikoak.

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

■ 4.1.3. Larrialdi handien abisu-sistema

“SEVESO” izenez ezagunak diren enpresa kimikoek herritarrei abisatzeko sirenen sistema bat izaten dute, baldin eta enpresa horien kanpoko larrialdi planak hala ezartzen badu. Sirena horien instalazioan Eusko Jaurlaritzak eta Hernaniko, Lantarongo, Muskizko eta Santurtziko Udalek³³ parte hartu zuten eta mantentze-lanak Jaurlaritzari eta enpresa kimikoei³⁴ dagozkie.



Hernani, Lantaron, Muskiz eta Santurtzi Udalerriek sirenak dituzte, ihesen bat badago, herritarrei hodei toxikoaz ohartarazteko.

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

4.2. Abisatzeko eta informatzeko beste sistema batzuk


4.2.1. Alderantzizko 112a

Arrisku guztien kasuan, geolokalizazio-aukera duten Smartphoneen sistemek aukera eman beharko lukete beharrezkoak izan daitezkeen alerta-mezuak telefono horiek adskribatuta dauden errepikagailuen bidez bidaltzeko. EB ari da lerro horretan lan egiten eta epe laburrean emaitzak lortzea espero da. Horren izen ofiziala “alderantzizko 112a” da; izan ere, 112 Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak larrialdi-egoeretan herritarren deiak jasotzeko zentroak ez ezik, herritarrak alertatzeko zentroak ere izan daitezke, beharrezkoa izanez gero.

Telefonia-operadore guztiei eragiten dien sistema hori martxan ez dagoen bitartean, Segurtasun Sailak herritarrei alerta geolokalizatuak bidaltzeko aukera ematen duen sistema bat diseinatu du. Sistema horretan alertak App 112 SOS DEIAK aplikazioaren bidez bidaltzen dira maila laranja edo gorriko fenomeno naturalekin lotutako egoeretan, edo herritarren konfinamendua edo ebakuzioa eragiten duten gai toxiko edo arriskutsuekin lotutako egoeretan. Horrela, App-an funtzionalitate hori aktibatuta dutenek jarraibideak jaso ditzakete larrialdietan nola jokatu jakiteko.



Aplikazio horrek SOS Deiak Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera ematen du, 112ra egindako dei baten bidez edo, bestela, ahotsik gabeko sarbide baten bidez.



Alderantzizko 112-aren funtzionalitateari esker, herritarrei app-aren bidez alerta geolokalizatuak bidali ahal zaizkie.

4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

4.2.2. Sare sozialak

Argi dago gure gaur egungo gizarteko komunikazioan sare sozialek garrantzi handia izaten dutela eta informazio hori berehala zabaltzen dute hedabide tradizionalak (prentsa, irratia eta telebista).

Twitter sareko gune bat da. Hor erabiltzaileak komunikatzen dira eta harremanetan egoten dira, 280 karaktereko mezuak azkar eta maiz trukaturik. Sare hori larrialdi-gaietan laguntza gisa erabili behar dugu, hari esker informazioa berehala, mundu-mailan eta modu biralean bidali eta jaso baitaiteke. Horregatik, estrategikotzat jotzen da larrialdiei aurre egiteko sistemetan sartzea.

Herritar gehienengana heltzeko helburuarekin eta teknologiak baimentzen duen berehalakotasuna aprobetxatzeko, Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Twitter sarean bi kontu ditu:

- @Euskalmet³⁵
- @112_SOSDeiak³⁶



Twitter @112_SOSDeiak kontua.



Twitter @Euskalmet kontua.


4. HERRITARREKIKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

Kontu horietan ematen den informazioa arrakastatsua da, ikusi besterik ez dago kontu horiek dituzten hamarka mila jarraitzaileak.

Bi kontu horien helburu orokorrak hauek dira:

- Herritarrei informatzea meteorologiarekin eta larrialdiekin lotutako gertaera garrantzitsuei buruz eta haien bilakaerari eta ondorioei buruz, baita LAEMZen ekitaldiei eta prestakuntza- eta zabaltze-jarduerei buruz ere.
- Informazioaren bidez autobabesa sustatzea. Herritarrei mezuak zabaltzea kasuan kasuko egoera dela eta, autobabes-neurriak hartzea nahitaezkoa denean.
- Gertaera batek eraginda dauden pertsonengandik informazioa jasotzea, egoeraren berri izateko zein ondorioak ebaluatzeko prozesuak hobetzeko; horri esker, larrialdien kudeatzaileek erabakiak hobeto hartu ahal izan ditzaten.

- Gertakariei buruzko informazioan liderrak izatea eta informazio hori ofizial egitea, gardentasunez eta fidagarritasunez, nahi ez diren ondorioak eragin ditzaketen gezurrak eta esamesak galaraziz.
- Hurbiltasuna eta begikotasuna lortzea. Administrazioa herritarrengana hurbiltzea eta beharrezkoak diren ezagutzak eta informazioa herritarrei era erraz eta atsegina batean ematea.



ERREFERENTZIAK

1. Uholdeak.(1983). Caja de Ahorros Vizcaína.
2. Lluvias torrenciales agosto 1983. Cuantificación de la catástrofe. Bizkaiko Foru Aldundia.
3. 34/1983 Dekretua, martxoaren 8koa, Ekintzak Koordinatze-ko Zentroak sortzen dituena. Gaur egun indargabetuta.
4. Urtarrilaren 21eko 2/1985 Legea, Babes Zibilari buruzkoa (gaur egun indargabetuta).
5. Anitua Aldekoa, P. (2006) Manual de Protección Civil. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
6. 15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeakoa.
7. Euskadiko Segurtasun Publikoko Plan Orokorra (ESPPO) (2020-2025).
8. Larrialdiak Kudeatzeko 1/1996 Legea, apirilaren 3koa.
9. 1//2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
10. 24/2010 Dekretua, urtarrilaren 19koa, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren duten borondatezko parte-hartzeari buruzkoa.
11. 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituena. (Hutsen zuzenketa, 14 zk.ko EHAA, 2014/01/22koa).
12. 21/2019 DEKRETUA, otsailaren 12koa, Larrialdiei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzekoa.
13. Agindua, 2016ko irailaren 5koa, Segurtasuneko sailburuarena, autobabes-planak egiteko teknikari eskudunen akreditazioa arautzen duena.
14. 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, Larrialdiei aurre egiteko bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituena.
15. 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, «Larrialdiei Aurre egiteko Bidea-Labi» Euskadiko Babes Zibileko Planaren ezohiko berrikusketa onartzen duena.
16. 17/2015 Legea, uztailaren 9koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzkoa.
17. <https://www.euskadi.eus/larrialdi-euskal-sistema-taktika-operatiboak/web01-a2larri/eu/>
18. Agindua, 2001eko abuztuaren 1koa, Herrizaingoko sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzeko eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzeko dena.
19. Agindua, 2020ko abenduaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua.
20. 632/2013 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, hegazkintza zibileko istripuen biktimei eta haien senideei laguntzekoa.
21. Ebazpena, 2014ko maiatzaren 14koa, Idazkariordetzarena, hegazkintza zibileko istripuen biktimei eta haien senideei laguntza emateko Koordinazio Protokoloa onartzeko dena.
22. RC-007 prozedura, 900 informazio-telefonoari edo beste batzuei arreta emateari buruzkoa.
23. PTO-SOS-066 prozedura, IMVetan biktimei eta haien senideei arreta psikosoziala emateari buruzkoa.
24. 123/1984 Epaia, abenduaren 18koa, Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurarena.
25. 903/1997 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, 112 telefono-zenbakiaren bidezko larrialdi-deiei arreta emateko zerbitzura telekomunikazio sareen bitartez sartzeko bidea arautzen duena.
26. Kontseiluaren 1991ko uztailaren 29ko Erabakia, Europako larrialdi-deietarako zenbaki bakarra sortzeari buruzkoa. (91/396/EEE).
27. Barne Ministerioaren Idazkariordetzaren ebazpen batzuk, Euskal Autonomia Erkidegoan, hegazkin konpainia bat tartean dagoenean, hegazkin zibilen istripuen biktimei eta haien senideei laguntzeko Harremanetarako Pertsona izendatzekoak.
28. “Euskarri”, Segurtasun Saila.
29. “Enbor Sarea”, Segurtasun Saila.
30. <https://www.euskalmet.euskadi.eus/hasiera/>
31. PE-005 prozedura, muturreko fenomeno meteorologikoak aurreikusteari, horiek begiratzeari eta horietan jarduteari buruzkoa.
32. https://www.euskadi.eus/web01-a2larri/eu/contenidos/informacion/avisos_carta/eu_def/index.shtml
33. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Udalen arteko hitzarmenak, larrialdi-egoeretan herritarrei abisatzeko sistema bat instalatzeko esparrua ezartzeko eta arautzeko.
34. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta enpresa kimikoen arteko lankidetzeta-hitzarmena, larrialdi kimikoetan herritarrei abisatzeko sistemen sarearen mantentze-lanetarako.
35. LAEMZen RC-003 prozedura, Twitter @Euskalmet.
36. LAEMZen RC-002 prozedura, Twitter @112_SOSDeiak.
37. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistema. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia. 2012. urtea.

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Jatorrizko obra: LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMA

Argitaraldia: 1.a 2023ko otsaila

Ale-kopurua: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa - Segurtasun Saila

Internet: www.euskadi.eus/argitalpenak

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia/San Sebastian kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Pedro Anitua Aldekoa

Itzulpena: Segurtasun Saila

Diseinua: Biok Comunicación S.L.

Argazkiak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa - Segurtasun Saila

Imprimatzea: LA TRAMA DIGITAL PRINT, S.L.

ISBN: 978-84-457-3688-3

Lege-gordailua: LG G 1-2023



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

